

**IZAERA
INTEGRALEKO
IRAKASKUNTZA
KOOPERATIBA
DEN ARIZMENDI
KOOP E-AREN
ESTATUTU
SOZIALAK**

2021eko otsailaren 11ko
Batzar Nagusian onartuta



**KONFIANTZAREN
PEDAGOGIA[®]**

LEINTZ BAILARAKO
HEZKUNTZA - KOOPERATIBA EUSKALDUNA

AURKIBIDEA

I	KAPITULUA: IZENA, HELBURU SOZIALA, EGOITZA SOZIALA, IRAUPENA ETA LURRALDE EREMUA	4
1.	artikulua. Izena	4
2.	artikulua. Helburu Soziala	4
3.	artikulua. Egoitza	4
4.	artikulua. Iraupena eta Lurralde Eremua	4
5.	artikulua. Hizkuntza ofiziala	4
6.	artikulua. Irabazi asmorik gabeko erakundea	4
II	KAPITULUA: BAZKIDEAK	6
7.	artikulua. Bazkide motak	6
8.	artikulua. Bazkide izan daitezkeen pertsonak	6
9.	artikulua. Onartua izateko betebeharrak	7
10.	artikulua. Onarpenari buruzko erabakiak	8
11.	artikulua. Onarpen prozedura	8
12.	artikulua. Onarpen erabakia aurkatu edo inpugnatzea	8
13.	artikulua. Eskubide eta betebeharrak sozialak	9
14.	artikulua. Erantzukizuna	9
15.	artikulua. Bazkideen betebeharrak	9
16.	artikulua. Bazkideen eskubideak	10
17.	artikulua. Informazio eskubidea	10
18.	artikulua. Bajaren arrazoiak eta ondorioa	11
19.	artikulua. Bazkidearen borondatezko baja	11
20.	artikulua. Bazkidearen nahitaezko baja	12
21.	artikulua. Kanporatzea	12
III	KAPITULUA: BAZKIDEEN DIZIPLINA ARAUAK	13
22.	artikulua. Hutsegite sozialak kalifikazioa	13
23.	artikulua. Hutsegite sozialengatiko zigorrak	14
24.	artikulua. Zigor prozedurak	14
IV	KAPITULUA: BARNE ANTOLAMENDUA	16
25.	artikulua. Lan Bazkideen barne antolamendu funtzionala	16
26.	artikulua. Gizarte Segurantzaren erregimena	17
27.	artikulua. Kooperatiba erakundeekiko harremanen oinarritzko elementuak	17
V	KAPITULUA: EGITURA ORGANIKOA	18
28.	artikulua. Organo sozialak eta Zuzendaritzakoak	18
29.	artikulua. Batzar Nagusia	18

30.	artikulua. Batzar Nagusirako deialdia	19
31.	artikulua. Batzar Nagusiaren funtzionamendua	20
32.	artikulua. Boto eskubidea	21
33.	artikulua. Biltzar Prestatzaileak	21
34.	artikulua. Gehiengoak	22
35.	artikulua. Erabaki Sozialak aurkatzea edo inpugnatzea	22
36.	artikulua. Kontseilu Errektorea	22
37.	artikulua. Kontseilu Errektorea osatzea, kideak aukeratzea, karguuzteak eta postu bete gabeak	24
38.	artikulua. Kontseilu Errektorearen funtzionamendua	25
39.	artikulua. Kontseilu Errektoreari buruzko xedapenak	25
40.	artikulua. Kontseilu Errektoreko kideen erantzukizunak	26
41.	artikulua. Kontseilu Errektorearen erabakiak aurkatzea	27
42.	artikulua. Zuzendaritza. Izendapena eta kargu uztea	27
43.	artikulua. Zaintza Batzordea	28
44.	artikulua. Kontseilu Soziala	28
VI . KAPITULUA: EKONOMI ARAUBIDEA		30
45.	artikulua. Irizpide orokorrak	30
46.	artikulua. Kapital Soziala	30
47.	artikulua. Gutxieneko Kapital Soziala	30
48.	artikulua. Hasierako NahitaezkoEkarpena eta Sarrera Kuota	30
49.	artikulua. Bazkidearen Gutxieneko Ekarpena	31
50.	artikulua. Borondatezko Ekarpenak	31
51.	artikulua. Ekarpenen Interesak eta Balantzearen Gaurkotzea	31
52.	artikulua. Ekarpenen eskualdatzea	32
53.	artikulua. 11/2019 Legean araututako kooperatiba ekarpenak berreskuratzea	32
54.	artikulua. Soberakinen banaketa	33
55.	artikulua. Nahitaezko Fondoak	33
56.	artikulua. Galeren Egozpena	33
VII . KAPITULUA: KOOPERATIBAREN LIBURUAK ETA KONTABILITATEA		34
57.	artikulua. Kooperatibaren dokumentazioa	34
58.	artikulua. Kontabilitatea	34
58.bis	artikulua . – Kooperatibaren Ekitaldi Ekonomikoa	34
VIII . KAPITULUA: DESEGITEA ETA KITATZEA		35
59.	artikulua. Desegiteko arrazoiak	35
XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA		36

I KAPITULUA: IZENA, HELBURU SOZIALA, EGOITZA SOZIALA, IRAUPENA ETA LURRALDE EREMUA

1. artikulua. Izena

“Arizmendi, Koop. E.” izenarekin, Arrasaten irakaskuntzako kooperatiba elkarte bat, izaera integralkoa, eratu da, abenduaren 20ko 11/2019 Legearen, Euskadiko Kooperatibei buruzkoaren, Printzipioen eta Xedapenen arabera, baita legezko aginduen eta Estatutu hauen arabera ere.

2. artikulua. Helburu Soziala

Bat. Kooperatiba elkarte honen helburua unibertsitatekoa ez den euskarazko irakaskuntza eta hezkuntzagarapena bere maila, etapa, ziklo, gradu eta modalitate guztietan eman eta sustatzea da, baita ikasleen heziketa integrala ere gizartearen zerbitzurako, erakunde eta organismo publiko nahiz pribatuekin elkarlana eginez komunitateak hezkuntzaren kudeaketan parte hartu eta kultura eskuratzeko aukeraberdintasunaren printzipioa gauzatu ahal izateko, oinarrizko printzipio honen arabera:

a) Ikasleen heziketa integrala, hainbat arlotako jakintza ematea ez ezik, beren nortasunaren garatzea eta pertsona aske eta arduratsu gisa prestatzea ere barne dela.

Bi. Helburu soziala betetzeko jarduerak, kooperatibakonpromisoaren oinarrizko aldeetan behintzat, Kooperatibak berak eta bere bazkide laguntzaileek zuzenean garatu beharko dituzte; horren kaltetan gabe, jarduera horiek edozein erataraz erraztu, osatu, koordinatu edo integratu ahal izango dituzte kooperatibarekin elkarlanean diharduten beste erakunde batzuek.

3. artikulua. Egoitza

Egoitza soziala Arrasate (Gipuzkoan), Otalora lizentziaduna kalea 8 egongo da, eta horren aldaketa, udalerriz beraren barruan, Kontseilu Errektoreak erabaki ahal izango du, abenduaren 20ko 11/2019 Legeak, Euskadiko Kooperatibenak, 79. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4. artikulua. Iraupena eta Lurralde Eremua

Bat. Kooperatibaren iraupena mugagabea izango da.

Bi. Jarduteko lurralde-eremua Euskadi izango da, baina eremu hau sozietateak bere bazkideekin kooperatibizatutako eragiketetarako bakarrik izango da, eta ez Kooperatibak garatutako beste edozein jardueratarako.

5. artikulua. Hizkuntza ofiziala

Euskara izango da hizkuntza ofiziala.

6. artikulua. Irabazi asmorik gabeko erakundea

Kooperatiba hau irabazi asmorik gabeko erakundea izango dela bermatzeko, ondorengo konpromisoak hartzen dira:

a) Ekitaldi ekonomiko batean lortzen diren emaitza positiboak ezingo dira bazkideen artean banatu.

- b) Bazkideek kapital sozialera egindako ekarpenek, nahitaezkoek nahiz borondatezkoek, ezingo dute diruaren legezko interesa baino interes handiagorik sortu.
- c) Kontseilu Errektoreko karguak dohainik beteko dira, nahiz eta zilegi izan kontseilariak beren eginkizunetan egiten dituzten gastuen ordain ekonomikoa jasotzea.
- d) Lanbarkideen eta besteren konturako langileen lansariak ezingo dira izan, soldatako langileei aplikatzen zaien hitzarmen kolektiboak, lanbidejarduera eta kategoriaren arabera, ezartzen dituen lansariak baino %150 handiagoak.

II . KAPITULUA: BAZKIDEAK

7. artikulua. Bazkide motak

Kooperatibak ondorengo bazkidemotak izan ditzake:

- a) Zuzeneko Bazkide Onuradunak.
- b) Lan Bazkideak.
- c) Bazkide Laguntzaileak.
- d) Jardunean ez dauden Bazkideak.

8. artikulua. Bazkide izan daitezkeen pertsonak

Bat. Zuzeneko Bazkide Onuradunak:

Beren semealaba edo tutoretzakoak Kooperatiba honetako ikasle dituzten gurasoak, ordezkariak edo tutoreak.

Adinez nagusiak edo emantzipatuak diren ikasleak, Kooperatibak Barne Araudian finkatuko dituen ikasmailetan eta zirkunstantzietan.

Bi. Lan Bazkideak:

Iraupen mugagabeak.

Lanbazkide izan daitezke Kooperatiban jarduteko eta beren lana egiteko gaitasuna dutenak eta, Estatutu hauek izenpetzerakoan beren gain hartutako eskubide eta betebeharez jabeturik, lana leialtasunez eta eraginkortasunez egitera konprometitzen direnak.

Lanbazkideen kopurua mugagabea da eta Kooperatibarekiko sozietatetolura mugagabea edota iraupen jakinekoa izan dezakete, baina azken hauek ezin dira izan lehenengo motako guztien %20 baino gehiago.

Iraupen jakinekoak.

Onarpenerabakian honela ezartzen bada, edozein bazkide izan daiteke iraupen jakineko bazkide gisa onartua, legez ezarritako baldintzetan eta mugekin.

- a) Iraupen jakineko bazkideek, probaldiaren ondoren jarraian kontratu mugagabea egiten bazaie, ez dute beste probaldirik izango, aurrez bete gabeko eginkizunetarako kontratatutakoan izan ezik.
- b) Iraupen jakineko bazkideek gutxiengutxienez hasierako ekarpen hau eta sarrerakuota hau ordaindu beharko dituzte:
 - Hasierako nahitaezko kapitalekarpena, lanbazkide mugagabeentzat erabakitakoaren %10.
 - Sarrera kuota, lanbazkide mugagabeentzat erabakitakoaren %10.
- c) Gero lanbazkide mugagabe gisa onartuak izaten badira, aurrez ordainduta dituzten hasierako nahitaezko ekarpenak eta sarrerakuotak kontuan hartuko dira lanbazkide mugagabe gisa ordaindu behar dituzten hasierako nahitaezko ekarpen eta sarrerakuota berriak osatzeko. Lanbazkide mugagabe bihurtzen den mementoan, bazkideak osatu egin beharko ditu bai hasierako nahitaezko kapital ekarpena eta bai sarrerakuota, memento horretan araututa dauden kopuruen arteko aldeari dagokionez, hau da, alta mugagabeen eta aldi baterakoaren arteko aldeari dagokionez.
- d) Hasierakoez gain nahitaezko beste kapitalekarpen batzuk onartzen badira, iraupen jakineko bazkideek iraupen mugagabeko bazkideek bezalaxe harpidetu beharko dituzte ekarpen horiek. Hala ere, ordainketa hori ezingo zaie eskatu bazkide mugagabe gisa Kooperatiban onartuak izan arte.

e) Iraupen jakineko bazkideek organo sozialetan parte hartzeko baldintza sozietate lotura indarrean izatea da, legeak ezartzen dituen baldintzak betez. Iraupen jakineko bazkidea Kooperatibako organo sozialen bateko kide baldin bada eta kontratututara bukatzen bazaio, kargua utzi egingo du automatikoki.

f) Iraupen jakineko lanbazkideen sozietate eta laneskubide eta betebeharrak, Estatutu hauetan berariaz bereizten ez badira, gainerako lanbazkideentzat ezarritakoen arabera arautuko dira.

Hiru. Bazkide Laguntzaileak:

Bazkide laguntzaile pertsona fisiko edo juridikoak izan daitezke, kooperatibaren helburu soziala erabat bete ezin badute ere, hori lortzen lagun dezaketena, bai zuzenean eremu sozial edo kooperatiboan, bai teknika, merkataritza, finantza edo enpresaarloko beste edozein eremutan.

a) Bazkide laguntzaileen laguntzabaldintzak eta gainerako eskubide eta betebeharrak bazkidearen eta Kooperatibaren arteko adostasunez ezarriko dira edota, bestela, Kontseilu Errektorearen onarpenerabakian; edonola ere, abenduaren 20ko 11/2019 Legeak, Euskadiko Kooperatibenak, 22. eta 23. artikuluetan arauturiko eskubide eta betebeharrak izango dituzte.

b) Bazkide laguntzaileen eskubideak eta betebeharrak ezartzerakoan, horretaz Estatutuetan eta Batzar Nagusiaren erabakietan ezarritakoaren arabera jokatu beharko du Kontseilu Errektoreak.

Lau. Jardunean ez dauden bazkideak

Gutxienez 10 urteko antzintasuna izan eta, bidezko arrazoiren batengatik, Kooperatiban lan egiteari behin betiko uzten dioten bazkideak jardunean ez dauden bazkide izan daitezke ondorengo arauen arabera:

a) Laneko bajarekin batera, berariaz eskatu beharko diote Kontseilu Errektoreari, eta honek erabakiko du; erabakia Batzar Nagusian aurkatu edo inpugnatu daiteke, baina gero ezingo da beste errekurtsorik aurkeztu.

b) Ezingo dira Kontseilu Errektoreko edo Zuzendaritzako kide izan, ezta kitatzaile edo Zaintza Kontseiluko kide izendatu ere.

c) Kooperatibaren martxaz informatuta egoteko eskubidea dute, baita Batzar Nagusian parte hartzekoa ere, bazkide laguntzaileen botokopuruaren barruan.

d) Gainerako eskubide eta betebeharretan, jardunean dauden bazkideei aplikatzen zaizkien irizpideen baldintzak izango dituzte.

9. artikulua. Onartua izateko betebeharrak

Bat. Lanprestazioa kontratatzeko laneko legeriak eskatzen dituen gaitasun baldintzak bete beharko dituzte lanbazkideek.

Lanbazkideen kopurua mugagabea da, eta horiek Kooperatibarekiko duten sozietatelotura mugagabea edota iraupen jakinekoa izan daiteke.

Bi. Bazkideak onartzeko oro har ondorengo baldintzak bete behar dira:

a) Onartua izateko eskatzea Kontseilu Errektoreko lehendakariari zuzendutako eskariz, Estatutu hauen arabera Kooperatibako partaide izateko eskubidea ematen dion egoera frogatuz.

b) Estatutu hauetan eta indarrean dauden gainerako erabakietan ekarpenei eta erantzukizun gehigarrii buruz dauden konpromisoak onartzea onarpeneskari horretan.

Hiru. Lanbazkidetzat onartua izateko, gainera, ondorengo baldintzak bete behar dira:



- c) 16 urte baino gehiago izatea.
- d) Gutxienez sei hilabeteko eta gehienez ikasturte baten iraupeneko probaldia gainditzea.

Probaldiak iraun bitartean:

Kooperatibak eta bazkidegaiak alde bakarreko erabaki librez deusezta dezakete beren harremana.

Ezingo dute aukeratu Sozietateko organoen karguetarako.

Ez du beharrik ez ahalmenik izango ez kapitalekarpina ez sarrerakuota ordaintzeko.

Probaldian Kooperatiban gertatzen diren galerak ez zaizkio egotziko.

Lau. Onarpenaren unean Kooperatiban gutxienez egon beharreko denboraldia itundu daiteke bazkidearekin, ezingo dena lau urtekoa baino luzeagoa izan.

10. artikulua. Onarpenari buruzko erabakiak

Bat. Bazkideak onartzeari buruzko erabakia Kontseilu Errektoreari dagokio, eta honek bidezko arrazoiz bakarrik ukatu ahal izango du, ondorengo hauetan oinarrituta:

- a) Kooperatibaren zerbitzugaitasunean.
- b) Batzar Nagusian bazkidemota guztien arteko proportzio egokiari eusteko premian.
- c) Kooperatibak bere hezkuntzaeginkizuna betetzeko duen lanbazkide berrien premia objektiboetan.
- d) Probaldiari buruz Zuzendaritzak egindako txostenetan.

Bi. Kooperatiban sartzeko irizpide orokorrak bere Barne Araudian ezarriko dira, geroago beste arau batzuk ere eman daitezkeelarik.

Hiru. Kooperatiban onartzea edo ez onartzea ezingo da egin helburu sozialarekiko diskriminazio arbitrario edo bidegabea suposatzen duten arrazoientzat.

Lau. Bazkide laguntzaileak onartzeko erabakia, iraupen jakinerako izan daitezkeelarik, Kontseilu Errektoreak hartuko du.

11. artikulua. Onarpen prozedura

Bat. Onarpeneskaria Kontseilu Errektoreari egingo zaio idatziz, probaldia bukatu baino hirurogei egun lehenago lanbazkideen kasuan. Eta eskaria hartzen duenetik hirurogei egun igaro baino lehen erabakiko du Kontseilu Errektoreak. Erabakia ezezkoa bada, horretarako arrazoiak eman behar dira. Eta erabakiaren berri idatziz emango zaio interesatuari aipaturiko epean, aldi berean egoitza sozialeko iragarki taulan ere argitara emanez.

Bi. Epe hori erabaki zehatzik hartu gabe igarotzen bada, eskaria onartutzat joko da.

12. artikulua. Onarpen erabakia aurkatu edo inpugnatzea

Bat. Ez onartzeko erabakiaren aurka Batzar Nagusira jo dezake eskatzaileak, hoguei laneguneko epean jakinarazpenetik aurrera zenbatuta. Errekurtsoari buruz, lehenengo egiten den Batzar Nagusiak erabaki beharko du, isilpeko botazio bidez, nahitaezkoa izango delarik interesatuak dioena alde

aurretik entzutea.

Bi. Onartzeko erabakia lehenengo egiten den Batzar Nagusian aurkatu daiteke, erabakia egoitza sozialeko iragarkitaulan argitara eman ondorengo hogeitai lanegunetan, bazkide guztien %20k gutxienez eskatzen badu.

Lanbazkide bati dagokionean, lanbazkideen %20k gutxienez eskatzen badu ere aurkatu daiteke onarpenerabakia.

13. artikulua. Eskubide eta betebeharrak sozialak

Bat. Eskubide eta betebeharrak sozialak onarpenerabakia argitara ematen den egunetik hasiko dira indarra izaten.

Erabakia aurkatu bada, erabakia etenda geratuko da Batzar Nagusiak erabaki arte.

Bi. Probaldiko bazkideek Estatutu hauek onartzen dizkieten eskubideak eta betebeharrak izango dituzte.

14. artikulua. Erantzukizuna

Bat. Kooperatibaren eragiketa sozialengatik bazkideek duten erantzukizun ekonomikoa nahitaezko edota borondatezko ekarpenen zenbatekora mugatzen da.

Bi. Behin finkatu ondoren itzuli beharreko ekarpenen zenbatekoa, Kooperatibatik irteten den bazkideak ez du inolako erantzukizunik izango bere bajaren aurretik Kooperatibak egindako zorretan.

15. artikulua. Bazkideen betebeharrak

Bat. Hona hemen bazkideen betebeharrak:

- a) Dei egiten zaienean, Batzar Nagusien eta gainerako organoen bileretara joatea.
- b) Karguetarako aukeratuak izanez gero, kargu horiek onartzea, uko egiteko bidezko arrazoirik ez badago, behintzat. Edozein kasutan ere, bidezko arrazoitzat hartuko da organo sozial batean aurrez karguren bat bete izana.
- c) Kooperatibaren helburu sozialean sartzen diren hezkuntzajardueretan parte hartzea.
- d) Lan bazkideen kasuan, beren lana ahalik eta ardura profesionalik handienaz egitea Kooperatibaren edozein lantokitan edo beste entitate batzuetan parte hartuz, betiere kooperatibak entitate horiekiko lankidetzan jarduten badu edo haietan parte hartzen badu edo helburu sozialari lotutako interes berezia badu. Lanprestazio honek Kooperatibaren helburuan parte hartzeko gutxieneko moduluak edo arauak betetzea esan nahi duela ulertzen da.
- e) Sozietatekoa izateak dakartzan ekonomi betebeharrak beren gain hartzea.
- f) Kooperatibaren helburuekin lehian dagoen jarduerarik ez egitea, eta egiten dituztenekin lankidetzan ez aritzea, Kontseilu Errektoreak berariaz horretarako baimena ematen ez badu, behintzat.
- g) Jendaurrean ez azaltzea Kooperatibaren izena belzteko eta ospea txartzeko moduan.
- h) Kooperatibaren barruan giro sozial egokia eta elkarbizitza begirunetsua lortzen saiatzea, leialtasunezko jarrera hartuta.

- i) Kooperatibaz ezagutzen dituzten datuak behar bezain isilpean gordetzea.
- j) Legearuetatik, Estatutu hauetatik eta Kooperatibaren organoetan hartutako erabakietatik ondorioztatzen diren gainerako betebeharrak.

Bi. Iraupen jakineko bazkideen betebeharrak sozialak Kooperatibako beste bazkideek dituztenen baliokideak izango dira.

Hiru. Betebeharrak sozial hauek, mota bereko bazkide guztientzat baliokideak, legezko eta estatutuzko arauen arabera eta Kooperatibako organoek balioz hartutako akordioaren arabera bete behar dira.

16. artikulua. Bazkideen eskubideak

Bat. Hona hemen bazkideen eskubideak:

- a) Kooperatibako organoen karguetarako aukeratzea eta horietarako aukeratua izatea.
- b) Batzar Nagusian erabakiak hartzen parte hartzea hitzarekin eta botoarekin, baita ordezkari bidez parte hartzen duten barruko edo kanpoko beste organoetan ere.
- c) Enpresakudeaketan parte hartzea.
- d) Kooperatibaren jardura eta zerbitzuetan parte hartzea, eta batez ere heziketarako eta kooperatiba sustapenerako eta interes publikoa duten beste helburu batzuetarako kontribuzioaren kargura egiten direnetan.
- e) Lanbazkideen kasuan, prestakuntza soziala eta profesionala izatea, bazkideak sozietate, pertsona eta lanbidealdetik errealiza daitezten.
- f) Beren eskubideak erabiltzeko eta betebeharrak betetzeko beharrezko informazioa hartzea.
- g) Kapital sozialera egindako ekarpenak gaurkotzea eta, hala dagokionean, horiek itzultzea.
- h) Legezko arauetatik, Estatutu hauetatik eta Kooperatibaren organoetan hartutako erabakietatik ondorioztatzen diren gainerako eskubideak.

Bi. Eskubide hauek, mota bereko bazkide guztientzat baliokideak, indarrean dauden arauen eta Kooperatibako organoek balioz hartutako erabakien arabera erabiliko dira.

17. artikulua. Informazio eskubidea

Bat. Bazkideek informazio eskubidea legean, Estatutuetan edo Batzar Nagusiaren erabakietan ezarritakoaren arabera erabil dezakete, eskubide hori errazteko eta gauzatzeko egokiak iruditzen zaizkien bideak ezarri ahal izango dituztelarik.

Bi. Bazkide orenen eskubideak izango dira ondorengoak:

- a) Kooperatibako Estatutu Sozialen eta Barne Araudiaren kopia bat eskatzea.
- b) Bazkideen Erregistro Liburua eta Batzar Nagusiko Akta Liburua aztertzea, eta Batzar Nagusiko aktaren eta bertan hartutako erabakien kopia ziurtatua eskuratzea, baita Bazkideen Erregistro Liburuan izena emandakoen ziurtagiria ere, aurrez bakoitzak eskari arrazoitua egiten badu.
- c) Bakoitzari pertsonalki eragiten dioten Kontseilu Errektorearen erabakien kopia ziurtatua eskatzea.
- d) Bakoitzak Kooperatiban duen ekonomi egoeraren berri jasotzea Kontseilu Errektoreagandik,

eskaria egin eta gehienez ere hilabeteko epean.

e) Kooperatibaren funtzionamenduaz edo emaitzez beharrezko iruditzen zaizkion argibide eta txostenak Kontseilu Errektoreari idatziz eskatzea; idazkia aurkeztu eta hamabost egun igaro ondoren lehenengo egiten den Batzar Nagusian erantzun beharko zaio eskatutakoari.

f) Ekitaldiko kontuez edo ekonomiazko edozein proposameni buruz eztabaidatu behar den Batzar Nagusian beroriei buruzko azalpen edo argibideak ahoz eskatzea, horretarako Kooperatibaren egoitza sozialean ikusgai egon behar dutelarik kontu horiei dagozkien agiri edo dokumentuak, emaitza aplikatzeko proposamena eta, hala balegokio, Kontseilu Errektoreak egindako kudeaketa txostena eta kanpo-ikuskaritzaren txostena bazkideek aztertu ahal izan ditzaten deialdiaren epean. Epe horretan, gutxienez bost eguneko aurrerapenez, aipaturiko azalpenak idatziz eskatu ahal izango dituzte bazkideek, Batzarrean bertan erantzuna jaso ahal izateko.

Hiru. Aurreko atalean ezarritakoaren kalterik gabe, boto sozialen %10 gutxienez ordezkatzen dituzten bazkideek noiznahi eska dezakete idatziz beharrezkoa iruditzen zaien informazioa.

Kontseilu Errektoreak ukatu egin dezake eskatutako informazioa, uste badu eskaria gehiegizkoa edo oztopagarria dela edota emateak arrisku larrian jar ditzakeela Kooperatibaren zilegizko interesak. Baina ezingo du ukatu eskatutako informazio hori Batzar Nagusian eman beharrezkoa baldin bada, eta bertaratutako eta ordezkatutako boto guztien erdia baino gehiago informazioeskari hori ematearen aldekoa baldin bada.

Informazioa ukatzea, abenduaren 20ko 11/2019 Legeak, Euskadiko Kooperatibenak, 51. artikuluan ezarritako prozeduraz aurkatu daiteke.

Lau. Edonola ere, Kontseilu Errektoreak hiru hilean behi gutxienez informatu behar ditu bazkideak, egoki iruditzen zaion bidea erabiliz, Kooperatibako aldagai sozio ekonomiko nagusiei buruz.

18. artikulua. Bajaren arrazoiak eta ondorioa

Bat. Hona hemen bazkideizaera galtzeko arrazoiak: borondatezko baja, nahitaezko baja eta kanporatzea.

Bi. Lanbazkide izateari uzteak ondorio gisa Kooperatibako lana uztea ekarriko du.

19. artikulua. Bazkidearen borondatezko baja

Bat. Bazkideak nahi duenean utzi ahal izango du Kooperatiba bere borondatez, Kontseilu Errektoreari idatziz abisu emanez hiru hilabete lehenago pertsona fisikoen kasuan eta lau hilabete lehenago pertsona juridikoen kasuan, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Hala ere, Kontseilu Errektorearen aginduz, ikasturtea bukatu arte Kooperatiban jarraitzea eska dakioke lanbazkideari.

Bi. Aurrez abisu emateko epea ez bada betetzen edota berriaz eskatutako gutxieneko egonaldiak ez badira betetzen, baja horiek ez dira bidezkotzat hartuko, Kooperatibako Kontseilu Errektoreak, kasuaren zergatiak aztertuta, bestelakorik erabaki ezean. Horretaz gain, Kooperatiban egin behar zituen lan eta zerbitzu guztiak bazkideari behar bezala betearazteko aukera ere badago, baita kalte ordainak eskatzeko ere.

Hiru. Borondatezko baja bidezkoa ez den bajatzat hartuko da, bazkideak Kooperatibaren jarduerekin lehiatu edo konkurrentzian aritu nahi badu.

Lau. Kooperatiba bategitea edo banatzea, motaz aldatzea, bere helburu sozialean funtsezko aldaketa egitea edo kapitalera nahitaezko ekarpen berriak eskatzea gertatzen bada, erabaki horien aurka botoa eman duen bazkidearen baja bidezkotzat joko da, baita erabaki horiek hartu ziren Batzar Nagusian egoterik izan ez, baina ados ez dagoela adierazten duenaren baja ere.



20. artikulua. Bazkidearen nahitaezko baja

Bat. Bazkideek Kooperatibatik irten beharra izan dezakete bazkide izateko baldintzak betetzeari utzi diotelako, sozietateloturak ezartzen zuen egonaldia igaro delako, heriotzagatik, Batzar Nagusiak arrazoi ekonomiko, teknologiko edo ezinbestekoetan oinarrituz hartutako erabakiagatik edo kanporatua izateagatik.

Kontseilu Errektoreak erabakiko du, kaltetuarekin hitz eginda gero, nahitaezko baja, bere kabuz edo ofizioz, beste edozein bazkidek hala eskatuta edo lana utzi beharko duenak berak eskatuta.

Bi. Kontseilu Errektorearen erabakia bete egin beharko da Batzar Nagusiak erabakia berretsi duela jakinarazten denetik aurrera edo errekurtsua aurkezteko epea bukatzen den mementotik.

Erabakia bete beharrekoa ez den bitartean, bazkideak Batzar Nagusian botoa emateko eskubidea izango du.

Hiru. Bazkide izateko baldintzak betetzeari uztean nahitaezko baja bidezkotzat hartuko da, baina ez kooperatibarekiko betebeharrak bete nahi ez dituelako edo nahitaezko bajaz behar ez bezala baliatu nahi duelako utzi badio baldintza horiek betetzeari.

Lau. Kooperatiban egoera ekonomiko edo teknologikoa larria izanik edo ezinbesteko kasuetan, Kooperatibaren bideragarritasunari eusteko lanpostuen edo talde profesional batzuen kopurua behin betiko urritu behar denean, Batzar Nagusiak erabaki beharko du zenbat eta zein bazkidek utzi beharko duten Kooperatiba; baja hau bidezkotzat hartuko da eta neurri hau jasaten duen bazkideak eskubidea izango du bere ekarpena berehala berreskuratzeko, eta berriro sartzeko ere lehentasuna izango du lanpostu berriak, bajaren aurreko bi urteetan zeukanaren antzekoak, sortzen badira.

Bost. Bazkideak, bere bajaren kalifikazioaz edo ondorioez Kontseilu Errektoreak hartutako erabakiarekin konforme ez badago, Batzar Nagusiaren aurrean errekurtsua jartzeko aukera izango du, Estatutu hauetan ezarritakoaren arabera.

21. artikulua. Kanporatzea

Bat. Kanporatzea Estatutu hauetan jasotako hutsegite oso larriagatik bakarrik erabaki dezake Kontseilu Errektoreak, horretarako izapidetutako espedientearen bidez eta kaltetuarekin hitz egin ondoren. Kanporatzeko erabakia espediente hasteko agindu zenetik bi hilabeteko epean eman beharko da gehienez ere. Epe hori erabakirik hartu gabe igarotzen bada, espediente artxibatu egingo da automatikoki.

Bi. Kanporatzeko erabakia hartu ondoren hori hamabost laneguneko epean jakinaraziko dio Kontseilu Errektoreak bazkideari, eta honek errekurtsua jar dezake Batzar Nagusiaren aurrean jakinarazten zaionetik aurrera hogeita hamar laneguneko epean.

Hiru. Egiten den lehenengo Batzar Nagusiak, ohikoak nahiz bereziak, erabakiko du errekurtsuaz, berariaz horretarakoxe ere dei daitekeelarik, eta Gai Zerrendan sartuko da. Batzarrak isilpeko botazioz erabakiko du, aurrez kaltetuari entzunda.

Lau. Batzar Nagusiaren berrespena jakinarazi edota bere aurrean errekurtsua jartzeko epea bukatzen den mementotik izango da bete beharrekoa kanporatzeko erabakia.

Bost. Batzar Nagusiak berretsitako kanporatze erabakia jakinarazi eta ondorengo bi hilabeteetan aurkatu edo inpugnatu daiteke.

Sei. Batzar Nagusiak berretsita kanporatu den bazkide bat berriro Kooperatiban onartzea Batzarrak bakarrik egin dezake.

III . KAPITULUA: BAZKIDEEN DIZIPLINA ARAUAK

22. artikulua. Hutsegite sozialen kalifikazioa

Bat. Kooperatiban giro egokia eta arduratsua ziurtatzeko, eta bazkideen arteko bizikidetzeta eta Kooperatibaren kudeaketa ekonomikoa inola ere ez oztopatzeko, ondorengo artikuluetan bazkideen diziplinaaraubidea garatuko da.

Lanbazkideak bere lanbidejardueran egindako hutsegiteengatik diziplina araubidea Kooperatibaren Barne Araudian garatuko da, honek ezingo dituelarik ez arindu ez astundu ondoren ezarritako hutsegiteen kalifikazioa eta zigorrak.

Bi. Kooperatibaren ordena instituzionalari buruzko hutsegite sozialtzat tipifikatuko dira —eta ez lanbazkideen lanprestazioaren zuzeneko ondorioztat— ondoren aipatuko diren egintzak eta omisio edo ezegiteak, beren mailaketaren arabera:

a) Hutsegite sozial arinak izango dira:

Estatutuzko edo erregelamenduzko aginduak eta funtzionamenduarauak ez betetzea, behin gutxienez, ezin desenkusatzeko ezjakintasunez.

Kooperatibaren ordena eta garapen onerako ezarrita dauden gainerako arauak ez betetzea.

Ezin desenkusatzeko zabarkeria edo axolagabekeria, Kooperatibaren interesei kalterik egiten ez badie.

Lanbazkideen kasuan, bidezko arrazoirik gabe, lana uztea, baita, lanorduetan edo lantokian lanarekin zerikusirik ez duten ekintzak, garrantzi txikikoak, egitea ere.

Iruzurrezko egintzak edo ezegiteak, bazkide bakoitzari emandako zeregin eta ardurak ongi betetzea arinki eragozten badute.

Deitutako Batzar Nagusietara ez joatea, bidezko arrazoirik gabe.

b) Hutsegite larriak hauek izango dira:

Hutsegite arinak berriro egitea urtebete baino lehen.

Kargu sozialetarako aukeratua izan ondoren, kargu horiek ez onartzea, arduraz ez betetzea edota karguak uztea, bidezko arrazoirik gabe, administratzaileen iritziz.

Estatutu hauetan ezarritako betebeharrak ekonomikoak betetzen atzeratu edo berandutzea.

Agiriak, gutunak eta datuak baimenik gabe atxikitzea, edota dagokienaz bestelako aplikazio, erabilera edo zertarakoa ematea.

Iruzurrezko egintzak edo ezegiteak, bazkide bakoitzari emandako zeregin eta ardurak ongi betetzea larriki eragozten badute.

c) Hutsegite sozial oso larriak hauek izango dira:

Hutsegite larriak berriro egitea urtebete baino lehen.

Organo eskudunek balioz harturiko erabakiak nabarmen ez betetzea.

Kooperatibaren interes material edo ospe sozialarentzat kaltegarri diren ekintza edo jarduerak egitea; adibidez, lehia egiten dutenak, ekarpen edo prestazioetan iruzurra, erakundearen administratzaile edo ordezkarienganako begirunerik eza eta antzeko beste batzuk.

Kontseilu Errektoreko kideei dagozkien egitekoak nork bere gain hartzea.

Kooperatibaren ezkutuko gutunen edo agirien isilpekoizaera urratzea, edota nahitaez isilpean eduki beharreko datuak besteri azaltzea.

Kooperatibaren oinarri sozialen kontra aurkakotasun sistematikoa eta proxelitismo publikoa.

15. artikuluan ezarritako betebeharrak behin eta berriro ez betetzea.

23. artikulua. Hutsegite sozialengatiko zigorrak

Bat. Hutsegite arinengatik:

Idatzizko ohartarazpena.

Botoeskubidea urtebete arte kentzea.

Diruzigorra, bi egunetarainoko lanauerrerakinei dagokiena.

Bi. Hutsegite larriengatik:

Aurreko Bat ataleko guztiak.

Idatzizko ohartarazpena, Kontseilu Errektoreak hala irizten badio, argitara emango dena.

Botoeskubidea bi urte arte kentzea.

Diruzigorra, 6 egunetarainoko lanauerrerakinei dagokiena.

Hiru. Hutsegite oso larriengatik:

Aurreko Bat eta Bi ataletako guztiak.

Eskubide sozial guztiak edo batzuk hiru urtera arte kentzea.

Diruzigorra, 2 hilabeterainoko lanauerrerakinei dagokiena.

Kanporatzea.

24. artikulua. Zigor prozedurak

Bat. Prozedura edo jardunbidea

Hutsegiteen espedienteetan agiri guztiak idatziz eta bi kopian egingo dira, horietako bat Kooperatibako espedienteetan geratuko delarik artxibatuta, bazkide bakoitzaren espedienteari atxikia.

Hutsegite arinetan, karguen zerrenda Batzorde Izapidegileak —Kontseilu Errektoreak bere barrutik izendatuko dituen hiru kidez osatuak— formulatuko du; Batzorde horrek hutsegitearen behinbehineko kalifikazioa eta dagokion zigor proposamena jakinaraziko dizkio idatziz bazkide erruztatuari. Bazkideak deskargua egin eta Kontseilu Errektoreari aurkeztu ahal izango dio, eta azkenean honek ezarriko ditu behin betiko kalifikazioa eta zigorra.

Hutsegite larri eta oso larrietan, karguen zerrenda Batzorde Izapidegileak egingo du, eta honek hutsegitearen behinbehineko kalifikazioa eta dagokion zigor proposamena jakinaraziko dizkio idatziz bazkide erruztatuari. Bazkideak deskargua egin eta Kontseilu Errektoreari aurkez diezaioke, eta honek berretsi edo aldatu egingo ditu proposaturiko kalifikazioa eta zigorra. Erabaki honen aurka, bazkide erruztatuak Batzar Nagusiaren aurrean aurkez dezake errekurtsioa.



Bi. Epeak, oro har

Berme juridikoa delaeta, diziplinaespedienteen faseetako bakoitzaren epeak ondorengoak izango dira —eta horietatik aurrera artxibatuta geratuko dira, kanporatzekoak izan ezik, hauek Estatutu Sozial hauen 21. artikuluan arautzen direlarik:

a) Espedientea hasteko epea

Hutsegiteen espedientea hasteko epeak, bazkide erruztatuari jakinaraztekoa barne, ondorengoak izango dira:

Hilabete, hutsegite arintzat tipifikaturiko kasuetarako.

Bi hilabete, hutsegite larritzat tipifikaturiko kasuetarako.

Hiru hilabete, hutsegite oso larritzat tipifikaturiko kasuetarako.

Preskripzio epea arau-haustea-egiten denetik hasten da zenbatzen.

b) Deskargua eta errekurtsua aurkezteko epeak

Bazkide erruztatuak 10 laneguneko epea du bere deskargua Kontseilu Errektorearen aurrean aurkezteko, Batzorde Izapidegileak hutsegitearen behin behineko kalifikazioa eta dagokion zigorproposamena jakinarazten dizkionetik.

Aurreikusitako errekurtsu bakoitza aurkezteko epea 30 lanegunekoa izango da, zigorrak jakinarazten direnetik aurrera.

c) Errekurtsoei erantzuteko epea

Aurreko atalean aurreikusitako errekurtsuak lehenengo Batzar Nagusian aztertuko dira.

Hiru. Zigorren betebeharrezkotasuna

Zigor guztiak bete beharrekoak izango dira errekurtsua jartzeko epea —espedientea jasan duen bazkideak eskubide hori erabili gabe— igarotzen den mementotik, edota erabaki apelaezina hartu ondorengo lehenengo egunetik aurrera.

Lau. Zigorak deuseztatzea

Kanporatzekasuan izan ezik, Kontseilu Errektoreak, zigortuek eskatuta, betetzeko geratzen diren zigorzatiak deuseztatu ahal izango ditu.

Halaber, zigorra bete eta urtebete igaro ondoren, zigor horien erregistroko idazpena deuseztatu egingo zaie Kontseilu Errektorearen iritziz errehabilitatu diren bazkideei.

IV. KAPITULUA: BARNE ANTOLAMENDUA

25. artikulua. Lan Bazkideen barne antolamendu funtzionala

Kooperatibako lanbazkideak Barne Araudian edo indarrean dauden gainerako arauetan ezarritakoaren arabera antolatuko dira barruan, eta irizpide orokor hauei jarraituz betiere:

- a) Kooperatibak lanbazkideak erabiliko ditu batez ere, eta besteren konturako langileak kontratatu behar baditu, hauen kopuruak ez ditu legezko mugak gaindituko.
- b) Lanbazkide guztiak lanbideari dagokionez sailkatuko dira daukaten lanpostuaren eta bertan erakutsitako eraginkortasun edo errendimenduaren arabera, horretarako balorazio sistema egokiak erabiliz.
- c) Sozietate, lan eta ekonomi gaiak arautzea Kontseilu Errektorearen ahalmena izango da, Zuzendaritzak proposatuta.
- d) Hilero lanbazkideek beren lanaurrerakinak hartuko dituzte. Bazkide bakoitzaren lansaria bere lanindize edo kategoriaren arabera izango da. Eta lanindize edo kategoria hori osagai hauen batura izango da: lanbidesailkapena edo/eta beste ordezkio edo osagarri batzuk, ordainketaondorio berberaz, erregelamendu edo araudietan ezartzen badira.
- e) Lanaurrerakinek ez dute soldataizaerarik, Kooperatibaren emaitza ekonomikoen kontura aldizka ordaindutako kopuruak dira, eta beraz horien zenbatekoa, azken batean, emaitza haien arabera izango da.

Lanaurrerakinak erabakitzeko oinarritzko arau hauek izango dira kontuan:

Kontseilu Errektoreak urtero lanaurrerakinaren balioa, bat indizearen lanordu normal bati dagokiona, finkatuko du, edota hori ezean, kategoria bakoitzari dagokion lanaurrerakinaren balioa. Modulu hori berbera izango da Kooperatibaren lantoki guztietan eta gainerako indize edo kategorien lanaurrerakinak kalkulatzeko oinarritzat hartuko da.

Dena dela, lanbazkideen eta besteren konturako langileen lansariak ezingo dira izan sektoreko soldatako langileen Hitzarmen kolektiboak —lanbidejarduera eta kategoriaren arabera— ezartzen dituenak baino ehuneko ehun eta berrogeita hamar baino handiagoak.

- f) Lanbazkideen Lan Araubideari dagozkion gaiak Kooperatibaren Barne Araudian arautuko dira edota, hori ezean, Batzar Nagusiak egingo du hori, baina barne Araudiak ezingo ditu ez Estatutu hauetan ezarritako eskubideak murriztu, ezta betebeharrak astundu ere.
- g) Gehiengoei buruz Estatutu hauetan ezarritako araua orokortasunez aplikatuko da taldeerabakiak hartzea eskatzen duten organoetan eta sozietatebizitzako prozesuetan.
- h) Beste kooperatiba batzuekin, edo Kooperatibaren eta bere bazkideen artean edo Kooperatiba barruan bazkideen artean sortzen diren auzigaiak, kooperatiba arau edo ohituren interpretazio edo balorazioari eragiten diotenak, eta horien erabakia beste kontzeptu juridiko batzuetan ere oinarritu beharrekoa izan arren, barruan adiskidetzebide guztiak agortu ondoren, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren arbitrajepean jarriko dira.
- i) Lagun Aro BGA Eri egin beharreko ekarpenak ordaintzeko betebeharra bere gain hartzen du kooperatibak, bere bazkide langileen mesederako, Lagun Aro BGA Eren Estatutuek eta Prestazioen Erregelamenduak diotenaren arabera, bertan aurreikusitako prestazioak finantzatzeko asmoz eta, bereziki, gauzaeztandu edota ezinduentzako laguntza, osasun laguntza, aldi baterako ezintasuna, haurdunaldiko arriskua, amatasuna, enplegu laguntza, heriotzagatiko laguntza, erretiroa, alarguntasuna eta ezintasun iraunkorra.

26. artikulua. Gizarte Segurantzaren erregimena

Kooperatiba honek, lanbaskideek Gizarte Segurantzaren onurak izan ditzaten, Langile Autonomoen Erregimen Berezia hautatu du, Kooperatibaren jarduerari dagokiona.

27. artikulua. Kooperatiba erakundeekiko harremanen oinarrizko elementuak

Kooperatibak bigarren edo ondorengo mailako Kooperatibekin, aurreikuspenmutua eta gainegiturazko edo lankidetzako erakundeekin —dagoeneko elkarturik dagoenekin edo etorkizunean, balioz hartutako erabaki bidez, elkartzen denekin— izan beharreko harreman juridikoen oinarrizko arauketa honelakoa izango da:

- a) Oro har, Kooperatibak erakunde horietan dituen eskubide eta betebeharrak eta horien gauzatzea eta betetzea haien Estatutuen edo eraketaarauen arabera egingo da, baita alde guztien artean aske hitzartutako itunen eta aplikatu beharreko legezko xedapenen arabera ere.
- b) Aipaturiko erakundeen organo eskudunek, bere kideentzat xedapenedukiarekin, emandako arau eta erabakiak Kooperatiban aplikatu beharrekoak izango dira, barneuzenbidea balitz bezalaxe.
- c) Kooperatibak erakunde horietan dituen eskubide politikoak bere ordezkarien bidez gauzatuko dira, ondorengo arauen arabera:

33 Bi b) artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe, ordezkari horiek Kontseilu Errektoreak izendatuko ditu, bai kasu bakoitzean espezifikoki, bai arautze egonkor baten bidez, elkartearen izaera eta emandako ordezkotza kontuan izanda.

Ordezkariak, ordezkari direla ahaztu gabe, beren erantzukizunpean eta nahitaezko agindurik gabe jardun eta lan egingo dute Kooperatibaren jarreraren alde, bestelakorik ezartzen duen Batzar Nagusiaren erabaki garbia dagoenean izan ezik.

Aurreko ataletan ezarritakoaren garapena eta aplikazioarauak Kooperatibaren Barne Araudian erregulatuko dira edota berariazko araudian.

V. KAPITULUA: EGITURA ORGANIKOA

28. artikulua. Organo sozialak eta Zuzendaritzakoak

Bat. Hona hemen Kooperatibako organo sozialak:

- a) Batzar Nagusia
- b) Kontseilu Errektorea
- c) Zaintza Batzordea
- d) Kontseilu Soziala

Bi. Kooperatibaren ohiko kudeaketari dagozkion gaiak Zuzendaritzaren aginpide edo eskuduntza dira. Horretarako zuzendariak, Kontseilu Errektorearen izenean, Kooperatibari interesatzen zaizkion egintzak zertuko ditu, eman zaizkion ahalmen eta aginpideen barruan.

Hiru. Zuzendaritzari laguntza eta aholkularitza emango dio Zuzendaritza Kontseiluak, eta honen osaera, ahalmenak eta funtzionamendua Kooperatibaren Barne Araudian arautuko dira.

Zuzendaritza Kontseilua zuzendaritaldearen eginkizunak koordinatzeko eta Kontseilu Errektoreari aholkularitza emateko organoa da, eta bere egiteko nagusia Kooperatibaren garapena aurreikusi, planifikatu eta sustatzea da, baita bere kudeaketa perfektionatzea ere.

Lau. Kooperatibak bere operatibitate eta garapenerako komenigarri iruditzen zaizkion organoak sortu ahal izango ditu, kasu bakoitzean erabakiko dituen ahalmenekin, salbu Legeak bertan beharrezko diren organoei berariaz esleitzen dizkienekin.

Bost. Kooperatibak ahaleginak egingo ditu bazkideen presentzia orekatua izan dadin bere organo guztietan. Halaber, genero-berdintasunerako neurriak ezarriko ditu, eta bereziki bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzeari begirakoak.

29. artikulua. Batzar Nagusia

Bat. Batzar Nagusia, bazkideek eratua, indarrean dagoen legeriak eta Estatutu hauek egozten dizkioten gaietan sozietatearen borondatea adierazten duen organo gorena da.

Batzar Nagusia zuzeneko bazkide onuradunek, lanbazkideek eta, elkarrekin, bazkide laguntzaileek eta jardunean ez dauden bazkideek osatuko dute.

Bazkide onuradunek eta bazkide laguntzaileek beren biltzar berezi edo prestatzeko biltzarretan, horretarakoxe egindakoetan, aukeratutako ordezkarien bidez parte hartuko dute Batzar Nagusian.

Bazkide guztiak, baita ados ez daudenak eta bertan izan gabeak ere, Batzar Nagusiak hartutako erabakien menpe daude, Estatutu Sozialek 35. artikuluan diotenaren kalterik gabe.

Bi. Kooperatibari buruzko gai guztiak eztabaida daitezke Batzar Nagusian, baina legearen arabera beste organo sozial baten eskuduntza eskusiboak ez diren gaietan bakarrik har ditzake nahitaez betebeharreko erabakiak.

Hiru. Batzar Nagusiaren erabakia nahitaezkoa da indarrean dagoen legeriak horrela ezartzen duen gaietan erabakiak hartzeko eta, betiere, ondorengo hauek hartzeko:

- a) Isilpeko botazioz, Kontseilu Errektoreko eta Zaintza Batzordeko kideak, kitatzaileak eta Kontseilu Sozialeko kideak izendatu eta kargutik kentzea, eta horiei erantzukizunak eskatzea.
- b) Kontuikuskatzaileak izendatzea eta, bidezko arrazoirik dagoenean bakarrik, kargutik kentzea.
- c) Kudeaketa soziala aztertzea, urteko kontuak eta soberakinen banaketa edo galeren egozpena

onartzea.

- d) Nahitaezko ekarpen berriak, kapitalekarpenek sortuko duten interesa eta sarrerakuotak edo aldizkakoak erabakitzea.
- e) Obligazioak, partaidetzako tituluak edo partaidetza bereziak jaulkitzea.
- f) Bazkideen altak eta bajak, kanporatzeak eta berriro onartzeak, diziplina espediente larriak eta oso larriak direlaeta jarritako errekurtsio eta aurkatze edo inpugnazioei buruz erabakitzea.
- g) Estatutu Sozialak onartu eta aldatzea.
- h) Kooperatibaren Barne Araudia onartu eta aldatzea.
- i) Bigarren mailako kooperatibak eta antzeko erakundeak eratzea, baita horietan sartzea eta horietatik banatzea ere.
- j) Kooperatibak beste batekin edo batzuekin bategitea, edo bere barruan zatitzea, eraldatzea eta desegitea.
- k) Estatutu hauen arabera, Kooperatibaren ekonomi, antolaketa edo funtzio egituraren funtsezko aldaketaren bat eragiten duten erabakiak hartzea.
- l) Legeak hala ezartzen duen gainerako erabaki guztiak.

Lau. Legearen arabera Batzar Nagusiaren erabakia nahitaezkoa den egintzetan bere aginpide edo eskuduntza eskuordetu ezina da, artikuluko honetako Hiru puntuan

i) atalean adierazitako kooperatibaintegrazioko prozesuetarako ezarritakoan izan ezik.

30. artikulua. Batzar Nagusirako deialdia

Bat. Batzar Nagusirako, Ohikorako edo Berezirako, deialdia Kontseilu Errektoreak egingo du.

Bi. Ohiko Batzar Nagusia sozietatearen ekitaldia amaitu eta hurrengo sei hilabeteak igaro baino lehen bilduko da nahitaez; kudeaketa soziala aztertzeke, hala balegokio, urteko kontuak onartzeko eta soberakinen edo galeren banaketa eta Gai Zerrendan sartutako gainerako gaiak erabakitzeko izango da.

Gainera, Ohiko Batzar Nagusiaren Gai Zerrendan beste edozein gai ere sar liteke, bere aginpide edo eskuduntzako baldin bada.

Hiru. Batzar Nagusiaren bilkurak, aurreko atalekoak ez direnean, berezizat hartuko dira, eta, Kontseilu Errektorearen iritziz, Kooperatibaren interesetarako komeni direnean deituko da horietara, edota boto sozialaren %20 gutxienez ordezkatzeko duen bazkidekopuruak edo Zaintza Batzordeak errekerimendu frogagarri baten bidez eskatzen duenean, Gai Zerrendan ezinbestean sartu behar direlarik eskariaren xede diren gaiak. Kontseilu Errektoreak, eskaria jasotzen duenetik aurrera, hamar egunetik hogeita hamar egunera arteko epea izango du dagokion deialdia egiteko.

Lau. Ohiko Batzar Nagusirako deialdia ez bada egiten legezko epearen barruan, edozein bazkidek eskatuta egin daiteke. Horretarako, honek errekerimendu frogagarri baten bidez egingo dio eskaria Kontseilu Errektoreari ez deitu izana salatuz, eta honek eskaria jaso ondorengo hamabost egunetan ez badu deialdia egiten, Batzar Nagusirako deialdi hori, baita batzarburu izan behar duena izendatzea ere, egoitza sozialari dagokion Lehen Auzialdi edo Instantziako epaileari eskatuko diote.

Bost. Batzar Nagusira egoitza sozialean argitaratutako iragarki bidez dei egingo da, eta gainera ikastetxeetako iragarkitauletan jarriko da, 11/2019 Legeak 35. artikuluan 5. puntuan ezarritakoa betez.

Deialdiaren iragarkian jaso behar da gutxienez bazkide guztiek eskubidea dutela kooperatibaren egoitzan eta intranetean gai zerrendako puntuei dagokien dokumentazioa aztertzeke bai eta bileraren

data, ordua eta lekua adieraziko dira lehen eta bigarren deialdian eta Gai Zerrenda adieraziko da behar hainbat xehetasunez. Kontseilu Errektoreak egoki irizten badio, Batzarrerako hirugarren deialdia aurreikusi ahal izango du. Kasu horretan, bigarren eta hirugarren deialdien artean gutxienez ordu erdiko tarte egon beharko da.

Deialdia Batzarra egin baino gutxienez hamar egun eta gehienez hirurogei egun lehenago argitaratu behar da.

Sei. Boto sozialen ehuneko hamar gutxienez ordezkatzeko duen bazkidekopuruak Gai Zerrendan puntuak sartzeko eskubidea izango du, eta hori deialdia argitaratu ondorengo bost egunetan Kontseilu Errektoreari zuzendutako idazki bidez egin behar du. Kontseilu Errektoreak nahitaez sartu behar ditu gai horiek eta Gai Zerrenda berria argitaratuko du aurreko atalean ezarritako publikotasun berarekin eta Batzarra egin baino lau egun lehenago gutxienez, Batzarra ezingo delarik inola ere atzeratu.

Zazpi. Aurreko zenbakietan ezarritakoaren kaltetan gabe, bilera baliozkoa izango da eta ez da deialdirik beharko Kooperatibako bazkide guztiak bertan bilduta edo ordezkaturik baldin badaude eta Batzarra egitea eta bere Gai Zerrenda aho batez onartzen badituzte.

31. artikulua. Batzar Nagusiaren funtzionamendua

Bat. Batzar Nagusia Kooperatibaren egoitza soziala dagoen herrian egingo da. Hala ere, administratzaileek beste leku batean egitea erabaki dezakete, hori justifikatzen duten arrazoiak badaude.

Kontseilu Errektoreak hala erabakitzen badu, bazkideek parte hartu eta erabakiak baliozkotasunez hartzeko borondatea adierazi ahal izango dute Batzar Nagusian bideokonferentzia edo horretarako ezarritako antzeko beste sistema baten bidez, noranzko biko komunikazioa ahalbidetzen duena, baita ikusmen, entzumen eta hitz-interakzioa ere. Halaber, Kontseilu Errektoreak bozketa telematikoetarako sistema gaitu ahal izango du, botoaren konfidentzialtasuna bermatuz.

Bi. Batzarra, Ohikoa edo Berezia, balioz eratuta egoteko, lehenengo deialdian botoen gehiengoa izan beharko da bertan edo ordezkaturik, eta, bigarren deialdian, gutxienez botoen ehuneko hamar ordezkatzeko duen bazkide kopurua. Kontseilu Errektoreak Batzar Orokorrerako hirugarren deialdia egitea aurreikusten badu, batzar hori egin ahal izango da, bertaratutako edo ordezkaturik boto-kopurua edozein dela ere.

Batzar Unibertsala denean, ezarritako Gai Zerrendak agertu beharko du ordezkotza egiaztatzeko idazkian.

Bazkide batek ezingo du, bereaz gainera, beste ordezkotza bat baino gehiago izan, ordezkotza hori banako batena nahiz pertsona juridiko batena izan. Era berean, bazkide diren pertsona fisikoek Batzar Orokorrean beren ordezkaritza ezkontidearen esku utzi dezakete. Ordezkotza Batzar Nagusi bakoitzerako emango da eta ezeztatzen da; ordezkaturikoa bera Batzar Nagusira joaten bada, balioa kenduko dio ordezkotzari.

Hiru. Kontseilu Errektoreko lehendakaria izango da Batzar Nagusiaren buru, eta idazkarilanak Kontseilu Errektoreko idazkariak egingo ditu. Horiek ezin badute, Batzarrak horretarako ezarritako beteko dituzte eginkizun horiek.

Lau. Gai Zerrendan jaso gabeko gaiak buruzko erabakiak ez dira baliozkoak izango dira, legeak berariaz baimendutako kasuetan izan ezik.

Bost. Idazkariari dagokio bilkurako agiri edo akta idaztea, bertan gutxienez honako hauek jaso behar direlarik:

- a) Non eta noiz egin den batzarra.
- b) Noiz eta nola egin den deialdia.

- c) Deialdiaren testu osoa.
- d) Zenbat izan diren Batzarrean eta horien izenzerrenda. Zenbat izan diren pertsonalki eta zenbat ordezkotza bidez. Halaber, ordezkarien kasuan, zeinen ordezkotza duten.
- e) Batzarra lehen, bigarren edo hirugarren deialdian egin den.
- f) Eztabaidatutako gaien eta aktan jasotzea eskatutako hitzaldien laburpena.
- g) Hartutako erabakien edukia eta botazioen emaitzak.
- h) Aktaren onarpena, hori bilkura amaitzean egin bada.

Batzar Nagusiaren akta ondorengo hamabost egunetan onartu behar dute lehendakariak eta Batzarrean izendatutako bi bazkidek, hauek idazkariarekin batera izenpetuko dutelarik, Batzarrak berak bilkuraren amaieran onartzen duenean izan ezik.

32. artikulua. Boto eskubidea

Bat. Boto sozialen guztizkoa Kooperatiban ordezkaturako hiru taldeen artean banatuko da, honela:

- a) Lanbazkideak %35
- b) Bazkide onuradunak %35
- c) Bazkide laguntzaileak %30

Bi. Lanbazkide bakoitzak boto bat izango du, eta hori Batzar Nagusian erabili ahal izango du, eskubide hori aldi baterako kenduta duenean edota nahitaezko abstentziokasuetan izan ezik.

Hiru. Bazkide Onuradunen eta bazkide laguntzaileen ordezkariak Biltzar Prestatzaileetan izendaturikoak izango dira.

33. artikulua. Biltzar Prestatzaileak

Bat. Zuzeneko Bazkide Onuradunak:

- a) Zuzeneko Bazkide Onuradunak nahitaez Biltzar Prestatzaileetan bilduko dira Batzar Nagusian beren ordezkari izango direnak izendatzeko.
- b) Zuzeneko Bazkide Onuradunek, aukeraketa egiten mementoan Kooperatiban dauden lanbazkideak adina ordezkari aukeratzeko dituzte. Zuzeneko Bazkide Onuradun aita edo ama, ordezkari edo tutorea izango da, semealabak edo tutoretzakoak, edo adin nagusikoak edo emantzipatuak ikasle dituenak, Barne Araudiak finkatzen dituen ikasmailetan eta zirkunstantzietan.

Bi. Bazkide Laguntzaileak

- a) Bazkide Laguntzaileek, Kontseilu Errektoreak horrela berretsita daudenean, aukeratzeko mementoan dauden lanbazkideen kopuruaren arabera dagozkien beste ordezkari aukeratzeko dituzte.
- b) Bazkide laguntzaileen ordezkariak aukeratzeko, zerrenda bat egingo da aukeragarri eta aukeratzailerik diren bazkide laguntzaile guztiekin. Pertsona fisikoak diren bazkide laguntzaileek boto bana izango dute, eta pertsona juridikoak diren bazkide laguntzaileek boto 1 eta 10 boto artean izango dituzte, Kooperatibarekiko loturaren arabera.
- c) Aukeragarriak diren bazkide laguntzaileen zerrendatik, bazkide laguntzaile aukeratzailerik dagozkien beste ordezkari aukeratzeko dituzte. Atal honi benetan dagozkionak baino izendapen gehiago dituen zerrenda guztiak baliogabeak izango dira. Botokopururik handiena lortzen duten

bazkide laguntzaileak aukeratuko dira. Berdinketa gertatuz gero, antzinasun handienekoa aukeratuko da.

d) Prestatzeko Biltzarretara Kontseilu Errektoreak dei egingo du Kooperatibako iragarkitaulan argitaratutako iragarki bidez, eta hala badagokio, kooperatibaren intranetean eta bazkide bakoitzari zuzendutako idazki bidez. Prestatzeko biltzar hauek Batzar Nagusia baino hamabost eta hogeita hamar egun lehenago egingo dira, eta Kontseilu Errektoreak ikuskatuko ditu.

34. artikulua. Gehiengoak

Bat. Batzar Nagusian erabakiak hartzeko, baliozko botoen erdia baino gehiago beharko da. Horretarako, ez dira kontuan hartuko ez boto zuriak ez abstentzioak. Salbuespenak izango dira legean edo Estatutuetan gehiengo indartuak eskatzen diren kasuak.

Bi. Kooperatibak beste batekin edo batzuekin bat egin edo bere barruan zatitu, eraldatu edo desegin behar duen erabakitzeko, batzarrean daudenen edo ordezkaturakoen botoen bi herenak beharko dira, betiere bertaratu eta ordezkaturakoen botokopurua Kooperatibako boto guztien ehuneko hirurogeita hamabost baino txikiagoa bada.

Hiru. Kontseilu Errektoreko kideak kargutik kentzea erabakitzeko, Gai Zerrendan agertzen ez denean, bertan dauden eta ordezkaturako botoen bi herenen aldeko botoa beharko da.

35. artikulua. Erabaki Sozialak aurkatzea edo inpugnatzea

Bat. Batzar Nagusiaren erabakiak aurkatu egin ahal izango dira legearen edo Estatutuen aurkakoak direnean, edota bazkide baten edo gehiagoren edo bazkide ez direnen mesedetan, Kooperatibaren interesentzat kaltegarri direnean.

Indarrrik gabe utzitako edo baliozko beste baten bidez ordeztutako erabakiak ezingo dira aurkatu.

Bi. Hona hemen legitimaturik daudenak erabakiak aurkatzeko:

- a) bazkide guztiak
- b) Kontseilu Errektoreko kideak
- c) Zaintza Batzordeko kideak
- d) bidezko interesa duen beste edozein.

Urtebete dago erabakiak aurkatzeko, herribake edo ordena publikoaren aurkakoak direnean izan ezik.

Hiru. Aurkatzeak Kapital Sozietateen Legean ezarritakora egokituko dira, baina aurkatutako erabakia indarrrik gabe uztea eskatu nahi bada, hori Zaintza Batzordeak eskatu behar du, edo botoen %10 gutxienez ordezkatzeko duen bazkidekopuruak.

Lau. Aurkatzea kontuan hartu duen epaiak bazkide guztiengan izango du eragina, baina ez die eragingo beste batzuek, aurkatutako erabakiaren ondorioz eta asmo txarririk gabe, lortutako eskubideei. Aurkatutako erabakia Kooperatibaren Erregistroan inskribatuta baldin badago, indarrrik gabe edo deuseztatuta utziko du epaiak.

36. artikulua. Kontseilu Errektorea

Bat. Kontseilu Errektorea Kooperatiba ordezkatu, gobernatu eta kudeatzeko organoa da, ahalmen guztiak dituelarik horretarako, Legeak edo Estatutu hauek beste organo sozial batzuei berariaz ematen dizkietenak izan ezik.

Dena dela, Kooperatibaren jokabide edo jardueraildo nagusiak ezartzeko aginpidea du, baita

indarrean dagoen legeriak eta Estatutuek egozten dizkieten gainerako ekintzak egiteko ere.

Kontseilu Errektoreari egotzitako ordezkariak printzipioz bere lehendakariak zertuko du, Kontseilu Errektoreak bestelakorik erabakitzen duenean izan ezik.

Bi. Ondorengo ahalmen espezifikoko dagozkio Kontseilu Errektoreari:

- a) Bazkideak onartzea eta horiei baja ematea, Estatutu hauetan ezarritakoaren arabera.
- b) Erantzukizun osoz, Kooperatibaren ordezkari izatea era guztietako egintza eta kontratuetan, batez ere parte hartzen duen erakundeetako organo sozialetan.
- c) Zuzendaria izendatzea eta, honen proposamenez, Departamentuetako zuzendariak ere bai, baita horiek kargutik kentzea eta horien ahalmenak, zereginak eta eskuduntzak erabakitzea ere.
- d) Kooperatibaren martxa antolatzea, zuzentzea eta ikuskatzea.
- e) Estatutuzko aginduak zuzen aplikatzeko edo Batzarraren erabakiak betetzeko beharrezko diren lan eta antolaketaaraudi funtzionalak onartzea, baita Estatutu hauetan ezarritako araudi instituzionalak Batzar Nagusiari proposatzea ere, eta bere ustez garrantzitsuak direlako Batzar Nagusiari aurkeztu beharrekoak.
- f) Helburu soziala gauzatzeko beharrezko edo komenigarri diren egintzak eta kontratuak egitea, salbuetsi gabe ondasun higiezin erosteta edo besterenganatzea, eskubide errealean eraketa, hipotekarena barne, eta errentamenduko berezia, baita Estatutu hauek Kooperatibari baimentzen dizkieten era guztietako negoziok eta eragiketak erabakitzea ere.
- g) Kredituak, maileguak edo sinadura bermatzeko eragiketak erabakitzea, Kooperatibarentzat komenigarriak baldin badira eta ez badagozkio Batzar Nagusiari.
- h) Erakunde publiko eta pribatuen aurrean abalak ematea, baita era guztietako tituluak —zor publikoarenak, edo balio higigarri edo higiezinak, zuzenbidean onartuak— erostea, saltzea, harpidetzea eta gordailatzea, berari ongi iruditzen zaion moduan ere eginez.
- i) Ekarpinak harpidetzeko eta bonuen, obligazioen edo, oro har, balioen jaulkipenak egiteko beharrezkoa dena erabakitzea, Batzar Nagusiak erabakitakoaren arabera.
- j) Fondo erabilgarrien inbertsio zehatza erabakitzea, baita Erreserbakoena eta heziketarako eta kooperatiba sustapenerako eta interes publikoa duten beste helburu batzuetarako kontribuzioarena ere, Batzar Nagusiaren erabakiak errespetatuz; Kooperatibaren aurrekontuak prestatzea, gastuak baimentzea eta ahalduak eta ordezkariak izendatzea, kasu bakoitzean bere ustez eman behar zaizkien ahalmenak emanez.
- k) Urtero Ohiko Batzar Nagusiari Urteko Kontuak aurkeztea eta, hala balegokio, soberakin garbien banaketa edo galeren egozpena proposatzea.
- l) Batzar Nagusietara, Ohikoetara eta Bereziatarara, dei egitea eta horietan erabakitakoa betearaztea.
- m) Epaitegi eta Auzitegi arruntetan edo berezietan, eta Estatu, Lurralde Administrazio Autonomo, Probintzia edo Udalerriko bulego, agintari, korporazio edo erakundeen aurrean Kooperatibari dagozkion eskubide edo akzioen egikaritzaz komenigarri iruditzen zaiona erabakitzea. Baita errekurso ohiko eta bereziak jartzeari buruz ere, ordezkariak, prokuradoreak edo abokatuak izendatuz eta kooperatibaren ordezkariak eta defentsa egin dezaten beharrezko ahalmenak emanez, baita adiskidetze, espediente, auzi, erreklamazio, helegite edo edozein eratako jardunetan ados jarri edo ez jartzeko, eta edozein prozeduraegoeratan berau eten dadin eskatzeko, eta beharrezko den guztirako, baita zabaltasun osoz judizialki amore emateko ere.
- n) Delituak Prebenitzeko Plana egitea eta haren jarraipenerako mekanismoak ezartzea. Era berean, berriazko bitartekoak onartuko ditu Kooperatiba indarkeria sexistarik gabeko eremua izan

dadin.

Hiru. Kontseilu Errektorearen eskuduntzen zerrenda hau enuntziatiboa bakarrik da eta ez ditu bere ahalmenak mugatzen, Legeak Kooperatibako beste organo batzuen aginpidean bereziki uzten ez duen guztian.

37. artikulua. Kontseilu Errektorea osatzea, kideak aukeratzea, karguuzteak eta postu bete gabeak

Bat. Kontseilu Errektorea, Batzar Nagusiak aukeratua, 17 kide titularrek osatuko dute, horietatik hiru lehendakaria, lehendakariordea eta idazkaria izango direlarik. Horiek izendatzerakoan ordezko hiru kide ere aukeratuko dira, titularren posturen bat behin betiko hutsik geratuz gero ordezko izango direnak Estatutuen arabera geratzen zaien denboraldian, eta hauek bazkide mota bakoitzaren ordezkaritza gisa izendatuko dira.

Karguak Kontseilu Errektoreko kideen artean aukeratuko dira, izendatu ondorengo lehen bileran. Aurrekoa gorabehera, Kontseilu Errektoreak idazkaritza-eginkizunetarako, kontseilaria ez den edo bazkidea ez den pertsona bat izenda dezake idazkari funtzioetarako; hitza izango du, baina botorik ez. Eta haren agintaldia mugagabea izango da, errebokatu arte.

Bi. Kontseilu Errektoreko kideak, titularrak eta ordezkoak, Estatutu hauen arabera bateraezintasunik edo eskubideak aldi baterako kenduta ez dituzten bazkideen artean aukeratuko ditu Batzar Nagusiak isilpeko botazioan, balioz emandako botoen gehiengo erlatiboan, lau urterako, baina berriro ere izan daitezkeelarik aukeratuak. Bi urtero erdia berrituko da.

Hiru. Ezingo dira Kontseilu Errektoreko kide izan ondorengoak, zuzendari gerenteaz, Zuzendaritza Kontseiluko eta Zaintza Batzordeko kideez gain:

- a) Lanutzaldi edo eszedentzian dauden bazkideak, honek iraun bitartean.
- b) Kooperatibaren jarduerekin lehian dauden jarduerak beren edo besteren kontura egiten dituztenak, edota edozein eratarik Kooperatibaren interesen aurkakoak dituztenak.
- c) Birgaitu edo errehabilitatu gabeko porrot egindakoak eta konkurtsatutakoak, adin txikikoak eta ezinduek, kargu publikoetan jardutea galarazten duten zigorrak betetzen ari direnak, lege edo gizarteko arauak modu larrian ez betetzeagatik zigorren bat jaso dutenak eta irabaziak ematen dituzten jarduera ekonomikoak egiterik ez dutenak beren karguarengatik.

Lau. Kontseilu Errektoreko kideren bat kargutik kendutakoan, Batzar Nagusiaren bilkura berean beste kide bat aukeratuko da, nahiz eta ez egon Gai Zerrendan jasota eta ordezkorik dagoenean izan ezik.

Bost. Kontseilarien uko egiteak arrazoitua izan beharko du, eta idatziz jakinarazi beharko zaio Kontseilu Errektoreari, eta hark erabakiko du alegatutako arrazoia justifikatuta dagoen edo ez, eta idatziz jakinaraziko dio interesdunari. Uko egitearen kalifikazioari errekurtsua jarri ahal izango da Batzar Nagusian, nahitaezko bazarako ezarritako baldintza eta epe berdinetan. Uko egitearen eragin-data uko egiten dion kontseilariak bere jakinarazpenean finkatu duena izango da, eta inola ere ezin da izan jakinarazpena baino lehenagokoa.

Karguuzte horiek artikuluko honetako Zazpi atalean aipatzen den egoera sortzen badute, kargua utzi duen edo duten kontseilariak beren egitekoak betetzen jarraitu behar dute Batzar Nagusia bildu arte.

Sei. Kontseilu Errektorean hutsik geratzen diren postuak Kontseilu Errektoreak berak beteko ditu, izendatuta dauden ordezkoak Kontseiluan berehala sartuz.

Zazpi. Lehendakariaren, lehendakariordearen edo idazkariaren karguak hutsik geratzen badira, ordezkoak sartuko dira eta hauekin egiten den lehenengo bileran karguak banatuko dira Kontseilu Errektorearen barruan.

Askok kargua utzi eta ordezkoak, baldin badaude, sartu ondoren, Kontseilu Errektoreko kideak ez

badira behar hainbat Kontseilua balioz eratzeko, Kontseilu Errektoreak bazkideen artean hutsik dagoen postua beteko duena izendatu ahal du hurrengo Batzar Nagusia egin arte edota Batzar Nagusira dei egingo du hutsik dauden postuak 15 eguneko epean betetzeko.

Zortzi. Kontseilu Errektoreko kideen karguuzteak, edozein dela ere horretarako arrazoia, Kooperatiben Erregistroan inskribatzen den mementotik izango du besteekiko eragina.

38. artikulua. Kontseilu Errektorearen funtzionamendua

Bat. Kontseilu Errektorea hilean behin bilduko da gutxienez, oporrak direla eta Kooperatibaren jardura nagusia etenda dagoenean izan ezik; edo deialdi berezia eginda ere bil daiteke, bere kideren batek eskari motibatua egin ondoren. Bere bileretan bere aginpideko gai guztiak aztertu eta erabaki daitezke.

Kontseilu Errektoreak hala erabakitzen badu, organo honetako kideek bere saioetan eta erabaki hartzean bideokonferentzia eta horretarako ezarritako beste sistema antzeko baten bidez parte hartu ahal dute, irudiaren eta soinuaren noranzko biko eta aldi bereko komunikazioa ahalbidetzen duena, bai eta ikusizko, entzunezko eta ahozko elkarreragina ere. Halaber, Kontseilu Errektoreak bozketa telematikoa egiteko sistema gaitu ahal izango du, botoaren konfidentzialtasuna bermatuz.

Bi. Kontseilu Errektorearen bileretara lehenakariak dei egingo du idatziz, eta deitutakoen artean, Kontseilu Errektoreak ongi irizten badio, zuzendaria egongo da, bilkuretan hitzarekin eta botorik gabe parte hartuko duelarik.

Aurreko atalean zehaztutako deialdi bereziaren eskariari lehenakariak ez badio erantzuten zazpi eguneko epean, eskari motibatua egin duenak dei dezake Kontseilu Errektorearen bilerara, betiere horretarako kontseilarien heren baten atxikimendua gutxienez lortzen badu.

Hiru. Kontseilu Errektorearen bilera baliozkoa izateko, kideen erdiak baino gehiagok egon beharko du bertan. Kontseiluaren bileretara bakoitzak joan behar du eta ezin da ordezkotzarik eman. Erabakiak hartzeko, bertan dauden kontseilarien erdiak baino gehiagok eman behar du aldeko botoa.

Lau. Bilera agiri edo aktak, lehenakariak eta idazkariak izenpetuta, eztabaiden berri jasoko du labur, baita erabakien testua eta botazioen emaitza ere.

Bost. Kontseilu Errektorearen ahalmenen bat Zuzendaritzaren edo kontseilari ordezkari baten esku iraunkorki uzteko eta kargu horiek beteko dituzten kontseilariak izendatzeko, Kontseilu Errektoreko kideen bi hereneko aldeko botoa behar da, eta erabakiak ez du eraginik izango Kooperatiben Erregistroan inskribatu arte.

39. artikulua. Kontseilu Errektoreari buruzko xedapenak

Bat. Kontseilu Errektoreko lehenakariaren ahalmenak ondorengoak izango dira:

a) Kontseilu Errektorearen izenean Kooperatibaren ordezkari izatea era guztietako arazoetan, baita Kontseilu Errektorearen eta Batzar Nagusiaren bileretan buru izatea ere.

b) Batzar Nagusiak edo Kontseilu Errektoreak hartutako erabakiak betetzeko ahalordeak egin eta agiriak, publikoak nahiz pribatuak, izenpetzea.

c) Erabakiak hartzerakoan Kontseilu Errektorean sortzen diren berdinketak bere botoaz erabakitzea.

d) Premiazko erabakiak hartzea, horien berri berehala eman beharko duelarik Kontseilu Errektorearen lehenengo bileran.

Bi. Idazkariaren eginkizunak beste hauek dira:



- a) Espedienteak osatzea eta horiek dagokien bezala bideratzea.
- b) Eskutitzak eta agiriak izenpetzea, lehendakariari ez badagozkio.
- c) Batzar Nagusien eta Kontseilu Errektorearen bileretarako deialdiak egin eta bidaltzea.
- d) Aipaturiko organo horien bileraagiriak edo aktak egitea.
- e) Kooperatibaren agiritegia, erregistroliburuak, aktaliburuak eta zigilua gordetzea.
- f) Kooperatibaren liburu eta dokumentuei buruzko ziurtagiriak egitea, lehendakariak ontzat emanda.

40. artikulua. Kontseilu Errektoreko kideen erantzukizunak

Bat. Kontseilu Errektoreko kideek ez dute berariazko ordainsaririk jasoko beren karguarengatik. Dena dela, beren karguak sortzen dizkien gastuak konpentsatuko zaizkie.

Lanbaskideen kasuan, kontseilarilanean egindako lanorduak ordainduko zaizkie, beren lanindizearen arabera.

Bi. Kooperatiben Legean araututakoaren arabera, Kontseilu Errektoreko kideak beren karguari dagozkion funtzioak eta legeetan eta estatutuetan ezarritako betebeharrak enpresaburu onaren arretaz bete beharko dituzte, kontuan harturik zer izaera duen haien karguak eta zer funtzio esleitu zaizkien, eta behar besteko neurri hartu beharko dituzte kooperatiba behar bezala kudeatzeko eta ordezkatzeko. Era berean, ordezkari leial bati dagokion fideltasunez jardungo dute beren karguan, onustez eta kooperatibaren onurarako, eta esleitu zaizkien ahalmenak ezarritako helburuetarako baliatuko dituzte, eta ez beste ezertarako.

Kontseilu Errektorearena izango da legearen edo estatutuen kontrako egintzen ondorioz sorturiko kalteen erantzukizuna, baita karguari dagozkion funtzioak ez betetzean eragindakoa ere, betiere dolo edo erruz jardun badute. Erantzukizun solidarioa dute egintza kaltegarria gauzatu edo erabaki kaltegarria hartu duen organoaren kide guztiek, salbu eta honako hau frogatzen dutenek: erabakia hartu edo betearaztean esku ez hartzeaz gain, ez zekitela erabaki hori hartu zenik, edo, jakin arren, kalteak saihesteko beharrezkoa zen guztia egin zutela, edo, gutxienez, espresuki jo zutela erabakiaren aurka.

Ez ditu erantzukizunetik libratuko egintza edo erabaki kaltegarria Batzar Nagusiak onartu, baimendu edo berretsi izanak.

Hiru. Kontseilu Errektoreko kideen aurka erantzukizunak eskatzeko ekintza Kooperatibak gauzatu dezake, Batzar Nagusiak ohiko gehiengoz hala erabaki ondoren, nahiz eta ez egon Gai Zerrendan sartuta. Eta erantzukizunak eskatzeko ekintza bultzatzeko erabakia hartzen badu Batzarrak, automatikoki kontseilariak kargutik kentzea ekarriko du horrek.

Gai-zerrendan ez badago, bertaratutako eta ordezkaturako botoen bi herenek eman beharko dute aldeko botoa, boto zuriak eta baliogabeak alde batera utzita.

Halaber, Batzarrak ekintza horren alde erabakia hartu eta ondorengo hiru hilabeteetan Kooperatibak ez badu ekintza hori aurrera eramaten, edozein bazkidek gauza dezake, Sozietatearen izenean eta kontura, dagokion demanda aurkeztuta. Gutxienez botoen % 20 ordezkatzeko duten bazkideek interes soziala defendatzeko erantzukizun-ekintza abiarazi ahaliko dute, administratzaileek ez dutenean horretarako eskatutako Batzar Nagusia deitzen.

Lau. Ekintza iraungi edo preskribituta geratuko da erantzukizunak eskatzeko arrazoi diren egintzak gertatu edo haiek ezagutu ondoren bi urte pasa eta gero.

Bost. Gainera, bazkideek eta beste edozeinek ere eska ditzakete erantzukizunak Kontseilu Errektorearen egintzengatik, beren interesei zuzenean kalte egiten badiete.

41. artikulua. Kontseilu Errektorearen erabakiak aurkatzea

Bat. Aurkatu egin ahal izango dira Kontseilu Errektorearen erabakiak legearen edo Estatutuen aurkakoak baldin badira, edo bazkide baten edo gehiagoren edo bazkide ez direnen mesedetan, Kooperatibaren interesei kalte egiten badiete.

Ezingo da erabaki bat aurkatu, beste batek indarrik gabe utzi badu edo balioz ordeztu baldin badu.

Bi. Erabakiak aurkatzeko, ondorengoak daude legitimaturik:

- a) bazkide guztiak, erabaki horiek ezagutu ondorengo 60 egunetan eta hartu zirenetik urtebete igarotzen ez den bitartean.
- b) Kontseilu Errektorea, erabakia hartu ondorengo 60 egunetan.
- c) Zaintza Batzordea, erabakia hartu ondorengo 60 egunetan.

Hiru. Aurkatzeak zehaztuta dauden ondorioak izango ditu, eta Batzar Nagusiaren erabakiak aurkatzeko ezarritakoaren arabera bideratuko da.

42. artikulua. Zuzendaritza. Izendapena eta kargu uztea

Bat. Kontseilu Errektoreak zuzendari bat izendatuko du, bazkideen ordezkari diren organoei kontsulta egin ondoren. Zuzendarilanak pertsona bakar batek edo talde batek egin ditzake, eta bere aginpidea Kontseilu Errektoreak emandako ahalmen eta eskuduntzetara iritsiko da eta haren kontrol iraunkor eta zuzenaren menpe betiere.

Bi. Kontseilari eta zuzendari izatea bateraezinak dira. Zuzendariari Kontseilu Errektoreko kide izateko ezarrita dauden bateraezintasunak aplikatuko zaizkio.

Hiru. Izendapena, ahalduztea eta karguuztea, zeinahi dela ere horretarako arrazoia, Kooperatiben Erregistroan inskribatuko dira.

Lau. Erantzukizunei buruz Kontseilu Errektorearentzat ezarrita dauden arauak aplikatuko zaizkio zuzendariari ere, baina erantzukizunak Kontseilu Errektoreak berak ere eska diezazkioke, bere bi herenak gutxienez ados jartzen badira aurrez.

Bost. Zuzendariak ematen zaizkion ahalmenak izango ditu, horien artean daudelarik besteak beste ondorengoak:

- a) Kooperatibaren ohiko trafikoari dagozkion gaiak.
- b) Kooperatibaren Urteko Kudeaketa Plana eta Plan Estrategikoa egiteko gidaritza eta gero Kontseilu Errektoreari proposatzea, eta horiek gauzatzeko ekintzak erabaki eta garatzea.
- c) Kooperatibako langile, inbertsio, finantza eta abarri buruzko politikak prestatu eta proposatzea, eta horiek benetan gauzatzeko erabakiak hartzea eta beharrezko neurriak ezartzea.
- d) Kooperatibako zuzendarien izendapena eta karguuztea proposatzea Kontseilu Errektoreari, eta helburu soziala betetzeko beharrezko izan litezkeen gainerako agintari edo exekutiboak izendatzea.
- e) Langileak, bazkide edo soldatakoak, kontratatzea, dagozkien kontratuak izenpetuz, ezarritako politiken barruan.

f) Kontseilu Errektoretik sortutako ildo edo norabideak garatu eta gauzatzeko beharrezko beste edozein.

43. artikulua. Zaintza Batzordea

Bat. Estatutu hauen arabera bateraezintasunik edo eskubideak aldi baterako kenduta ez dituzten bazkideen artetik, Batzar Nagusiak, isilpeko botazioz, 3 kide izendatuko ditu, bazkidemota bakoitzeko bana, Zaintza Batzordea osatuko dutenak, baita ordezkioak ere, 5 urtetarako.

Bi. Zaintza Batzordeko kideak berriro aukera daitezke eta Estatutu hauek eta legeak Kontseilu Errektoreko kideentzat ezartzen dituzten erantzukizun, ezintasun, debeku, ordainsari eta inskripzioarauak bete beharko dituzte.

Hiru. Kontseilu Errektoreak, hiru hilabetean behin gutxienez, Kooperatibaren jardueren eta aurreikusitako bilakaeraren berri emango dio Zaintza Batzordeari.

Lau. Zaintza Batzordeak ondorengo ahalmenak izango ditu:

a) Batzar Nagusiari aurkeztu aurretik, urteko kontuak aztertzea eta kontu horiei buruz eta soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruz nahitaezko txostena egitea, Kooperatibak bere finantzaegoera kontu ikuskaritzaren baten aurrean aurkeztera behartuta dagoenean izan ezik.

b) Kooperatibaren liburuak aztertzea.

c) Batzar Nagusia biltzeko deia egitea, Kooperatibaren onerako beharrezkoa iruditzen zaionean eta Kontseilu Errektoreak eskariari kasu egin ez badio, Estatutu hauetan ezarritakoaren arabera.

d) Ordezkozaidazkien egokitasuna ikuskatu eta kalifikatzea eta, oro har, batzarretara sartzeko eskubidearen inguruko zalantza eta gorabeherak erabakitzea.

e) Kooperatibaren erabakiak aurkatzea, Legeak zehaztutako kasuetan.

f) Batzar Orokorrari berak aurkeztu dizkion egoera edo arazo zehatzei buruz argibideak ematea.

g) Gainerako organoetako kideak Batzar Nagusiak nola aukeratzen eta izendatzen dituen zaintzea.

h) Kontseilu Errektoreko kideak ezintasun edo debekuegoeraren batean sartzen badira, horien eginbeharrak etetea, eta Batzar Nagusia bildu arte ezinbesteko neurriak hartzea.

i) Legeak berariaz agindutako gainerako guztiak.

Zaintza Batzordeak bere eginkizuna betetzeko komenigarri iruditzen zaizkion egiaztatze guztiak egin ditzake, lan horiek bere kideetako baten edo gehiagoren esku utz ditzakeelarik edo adituen laguntza eskatu, beharrezkoa iruditzen bazaio.

Bost. Zaintza Batzordeak aurreko atalean zehaztutako ahalmenak izango ditu, baina inola ere ezingo du zuzenean esku hartu Kooperatibaren kudeaketan, ezta honen ordezkari izan ere besteren aurrean. Hala ere, Kooperatibaren ordezkari izango da Kontseilu Errektorearen edo edozein kontseilariren aurrean, organo horren kontra aurkatze judizialak daudenean edo kontseilariekin kontratuak bukatzen direnean.

44. artikulua. Kontseilu Soziala

Bat. Kontseilu Soziala bazkideek Kooperatibaren kudeaketan parte hartzeko organoa da, eta bere helburua Kooperatibaren kudeaketa integralean sozietate eta lanikuspegia sartzea da, eta

kudeaketaeredua bazkideek langile gisa ditzuten premiekin koherentea izan dadin saiatzea, horretaz Batzar Nagusiari eta Kontseilu Errektoreari dagozkien egitekoen kalterik gabe.

Bi. Jardueraeremuak: oro har, laneremuko gaiak, izaera orokorrekoak edo taldeei dagozkienak direnean.

Hiru. Bere oinarrizko eginkizunak informazioa —behetik gorakoa eta goitik beherakoa—, erabakimahaiei aholkularitza ematea eta kudeaketaren kontrol soziala dira.

Lau. Eginkizun bereziak: Kooperatiban parte hartzeko beste organo batzuetan ere egon daiteke Kontseilu Soziala.

Bost. Kontseilu Soziala Kooperatibako Lehendakariak eta 9 lanbazkidek osatuko dute.

Bozketan berdinketa gertatuz gero, Lehendakariaren botua erabakiorra izango da.

Sei. Kontseilu Sozialeko kideak Batzar Nagusiak izendatuko ditu. Kargualdia hiru urtekoa izango da eta kide guztiak berriro aukera daitezke, mugarik gabe.

Urtero heren bat berrituko da.

Kargua uzteko zioak honako hauek izango dira:

- a) Dimisio arrazoitua, Kontseilu Errektoreak onartu beharko duena.
- b) Lanbazkide izateari uztea, lanutzialdi edo eszedentzian sartzea eta aldi baterako beste kooperatibaren batean kokatzea, edota Kooperatibatik kanpo egonaldi luzea egitea, Kontseilu Sozialaren iritziz kargua uztea eskatzen duena.
- c) Aurrez Kontseilu Sozialak bere irizpena emanda, diziplinaerregimenaren aplikazioz zigortua izatea.
- d) Aukeratu zuen taldeak berak hartutako erabakia atzera botatzea eta Batzar Nagusiak onartzea.

Zazpi. Kontseilu Errektoreko lehendakaria izango da Kontseilu Sozialekoa ere. Halaber, idazkari bat izango da, lehenengo bileran bere kideen artean aukeratua.

Kontseilu Sozialak ohiko bilera bat egingo du hilero, Kontseiluko lehendakariak behar hainbat aurrez deitua, bertan Gai Zerrenda jarri behar delarik.

Lehendakariak ongi irizten dionean edo Kontseilu Sozialeko kideen heren batek eskatutakoan, bilera bereziak egingo dira. Kasu honetan deialdia ezingo da astebete baino gehiago atzeratu.

Idazkariak bileraagiri edo akta egingo du.

Beste pertsona batzuei ere dei egin dakieke bilerara, aztertu beharreko gaiak horrela eskatzen badu eta lehendakariak gonbidatzen baditu.

VI . KAPITULUA: EKONOMI ARAUBIDEA

45. artikulua. Irizpide orokorrak

Bat. Ekonomi araubidean Kooperatibaren ondaregonkortasuna bermatzeko beharrezko mekanismoak ezarriko dira, bazkideen eta Kooperatibaren beraren intereserako eta Kooperatibarekin harremanak dituztenentzat berme edo garantia gisa.

Bi. Bazkideek hartu beharreko kapitalordainak eta lansariak, baita beraiei eskainitako zerbitzuen prezioa ere, zuhurtzarik eta zorrotzasunik handienaz erabakiko dira, kontuan izanda Kooperatibaren ondarearen egoera eta bilakaera eta etorkizuneko premiak.

Hiru. Kooperatibaren mantentzeari eusteko helburuarekin, horrela zerbitzu eta jarduera sozialei erantzuteko, Batzar Nagusiak aldizkako kuotak erabaki ahal izango ditu bazkideentzat; horien zenbatekoa desberdina izan daiteke bazkidemota bakoitzarentzat, edo bazkide bakoitzarentzat, bakoitzak jarduera kooperatibizatuarekiko duen konpromisoaren edo egin dezakeen erabileraren proportzioan.

46. artikulua. Kapital Soziala

Bat. Kooperatibaren Kapital Soziala Euskadiko Kooperatibei buruzko 11/2019 Legearen 60. 1.b. artikuluko ekarpenez eta aipatutako legean Kapital Sozialaren izaera duten gainontzeko ekarpenez osatuta egongo da.

Bi. Kooperatibak fondo ezgaldagarri bat izan dezake, partaidetza bereziz osatua, askatasunez eskualdatu daitezkeen tituluetan.

Hiru. Bazkideen ekarpenak egiaztatzeko izendun tituluak erabiliko dira, Kontseilu Errektoreko lehendakariak eta idazkariak izenpetuta, eta ez dira inola ere balio titulutzat hartuko.

Lau. Bazkideen edo beste batzuen ekarpenak, ohiko kooperatibaekarpen gisa formalizatzen ez direnak, ordaintzeko, eskuz aldatzeko eta berreskuratuzko, aldean artean itundutakoaren edo jaulkitzerakoan erabakitakoaren arabera jokatu da, legezko arauetara lotuta.

47. artikulua. Gutxieneko Kapital Soziala

Kooperatibaren gutxieneko Kapital Soziala, nahitaezko ekarpenek nahiz bertan sartutako borondatezkoek osatua, 6.010 eurokoa izango da, erabat harpidetua eta ordaindua.

48. artikulua. Hasierako Nahitaezko Ekarpena eta Sarrera Kuota

Bat. Kooperatiban sartzekoan Kapital Sozialera egin beharreko hasierako nahitaezko ekarpena honako hau izango da bazkidemota bakoitzarentzat:

- a) Bazkide Onuradunak: 72 euro.
- b) Lan Bazkideak: Nahitaezko Ekarpena, Lagun Aro BGAEko Prestazio Oinarrien Tarifako bat indizearen urteko kontsumoaurrerakin gordinaren zenbatekoaren %50ari dagokiona izango da, sarrerakuotaren zenbatekoa kenduta.
- c) Iraupen Jakineko Bazkideak: lanbazkideen ekarpenaren %10.
- d) Bazkide Laguntzaileak:

Pertsona Fisikoak: 24 euro.

Pertsona Juridikoak: 300 euro.

Bi. Sarrerakuota, hasierako ekarpenarekin batera mota bakoitzeko bazkideek ordaindu beharrekoa, honako hau izango da bazkidemota bakoitzarentzat:

- a) Bazkide Onuradunak: 12 euro.
- b) Lan Bazkideak: artikuluko honen bat atalean ezarritako nahitaezko ekarpenaren %20ri dagokiona.
- c) Iraupen Jakineko Bazkideak: lanbazkideen kuotaren %10i dagokiona.
- d) Bazkide Laguntzaileak:

Pertsona Fisikoak: 12 euro.

Pertsona Juridikoak: 12 euro.

Hiru. Sarrerakuotak ez dira kapital sozialean sartuko, baizik eta Nahitaezko Erreserba Fondoaren parte izango dira eta ezingo zaizkio bakoitzari itzuli.

Lau. Urtero, Batzar Nagusiak sarrerakuotaren nahiz hasierako nahitaezko ekarpenaren zenbatekoa ezarriko ditu bazkide berrientzat.

Bost. Batzar Nagusiak kapitalzabalkuntzak erabaki ahal izango ditu nahitaezko ekarpen berriak eskatuz bazkide guztiei, zenbatekoak, epeak eta ordaintzeko baldintzak ezarri.

Erabakitako kapitalzabalkuntzarekin ados ez dagoen bazkidea irten egin daiteke Kooperatibatik eta bidezko bajatzat hartuko da.

49. artikulua. Bazkidearen Gutxieneko Ekarpena

Bazkide bakoitzak, bazkide izaten jarraitzeko, gutxienez 6 euroko kapital ekarpenaren titular izan behar du, eta beharturik dago beharrezko ekarpen osagarriak egitera, bere ekarpenaren saldoa negatiboa denean edota aipatutako gutxieneko horretara iristen ez denean.

50. artikulua. Borondatezko Ekarpinak

Kapital Sozialaren egonkortasuna sendotzeko eta baliabide propioak gehitzeko eta, aldi berean, Kooperatibaren etorkizunean bazkideen inplikazioa areagotzeko, Kooperatibak baimendu eta sustatu egingo du finantzaketa bazkideek beren borondatez egitea, bai ohiko kooperatibaekarpenen bidez bai partaidetza berezien bidez, aparte utzita Kapital Sozialean sartzen ez diren beste figura batzuk: partaidetzako tituluak, obligazioak, maileguak, etab.

51. artikulua. Ekarpenen Interesak eta Balantzearen Gaurkotzea

Bat. Lanbazkideek Kapital Sozialera egindako ekarpenei ordainduko zaien interesa, Batzar Nagusiak hala erabakita, ez da zuzenean ekitaldi bakoitzeko emaitza ekonomikoen araberakoa izango, ezta ere legezko interesa baino handiagoa.

Lanbazkideek Kapitalera egindako ekarpenei dagokien ordaina emaitza garbi erabilgarriak —metaturiko galerak kenduta— baldin badaude bakarrik egingo da.

Bi. Borondatezko ekarpenek ezingo dute sortu diruaren legezko interesa baino interes handiagorik.

Hiru. Kooperatibaren balantzea zuzenbide komuneko sozietateentzat ezarritako baldintza eta onura berberekin erregularizatu ahal izango da.

Aktiboen erregularizaziotik sortutako gainbalioa, hala balegokio, aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzeko erabiliko da osoosorik eta gainerakoa erreserba fondo banaezinerako izango da.

52. artikulua. Ekarpenen eskualdatzea

Bat. Kooperatibaekarpenak eskuz aldatzeko irizpideek oinarritzko bi helburu izango dituzte:

- a) Eskualdagarrtasuna ahalik eta gehien malgutzea.
- b) Eskualdatze eragiketek ez diezaiotela Kooperatibaren finantzaegoerari kalterik egin, berreskuratze datetan sortutako aldaketengatik.

Bi. Eskualdatzeak egiteko aurrez Kontseilu Errektorearen adostasuna beharko da.

Hiru. Aurrekoa alde batera utzita, kooperatibak baja emandako bazkide batzuei dagozkien ekarpenak ez itzultzea erabaki duelako itzuli gabeko ekarpenik balego, bazkide berriek itzuli gabeko ekarpen horiek eskuratuta burutuko dituzte beraien derrigorrezko hasierako ekarpenak. Eskualdaketa hau, itzulketa eskaeren antzinasunaren arabera egingo da, eta data bera duten eskaerak egonez gero, ekarpenen zenbatekoaren arabera banatuko da proportzionalki.

53. artikulua. 11/2019 Legean araututako kooperatiba ekarpenak berreskuratzea

Bat. Bazkideizaera galtzen den kasu guztietan, bazkideak edo beren eskubidedunak ahalmen duta daude beren ekarpenen berreskuratzea eskatzeko, baja izan zen ekitaldiaren itxierako balioarekin eta legezko xedapenetan horretarako ezarrita dauden baldintzekin.

Bazkideei itzuliz Kapital Soziala murriztea kapital horren titular diren bazkideak Kooperatibatik irten direlako bakarrik gerta daiteke, ondoren aurreikusten denaren arabera.

Bi. Baja bidezkoa denean edo heriotzagatik denean, ez zaie ekarpenei inolako kenketarik egingo.

Gainerako kasuetan, Kontseilu Errektoreak honelako kenketa erabaki dezake:

- a) %30erainokoa, baja kanporatzeagatik izan bada
- b) %20erainokoa, bidezkoa ez den borondatezko bajakasuetan

eta ehuneko horiek bazkideak bajaren unean duen ekarpenaren zenbateko osoaren gain egingo dira, borondatezko ekarpenak salbu, hauei ez baitzaie inolako kenketarik egingo.

Hiru. Kontseilu Errektoreak ekarpenen itzulketarako egin den edozein eskaera ukatu dezake inolako baldintzarik gabe.

- a) Kontseilu Errektoreak ekarpenen berreskuratzea onartzen badu, itzultzeko epea, eta hori zehaztea Kontseilu Errektoreari dagokio, ezingo da izan bost urte baino gehiagokoa itzultzeko eskaera onartzeko erabakia hartzen denetik. Bazkidea hiltzea gertatuz gero, itzultzeko eskaera onartzeko erabakia hartzen denetik urtebete igaro baino lehen itzuli behar zaie eskubide hartzaileei.

Kontseilu Errektoreak onartutako berreskurapenak eskaeren antzinasunaren arabera egin beharko dira. Kapital ekarpenen berreskurapenaren baldintzak zehazteko gainontzeko xehetasunak ere Kontseilu Errektorearen esku egongo dira.

Kooperatibak itzultzea erabaki dituen ekarpenetan, itzuli beharreko kopuruak ezingo dira gaurkotu, baina une bakoitzean indarrean dagoen diruaren legezko interesa jasotzeko eskubidea emango dute.

b) Kontseilu Errektoreak ekarpenak berreskuratzeko egindako eskaera ez onartzea erabakitzen badu, itzuli gabeko ekarpenik dagoen bitartean, kooperatibaren organo sozialek ezin izango dute ekarpenen interesa ordaintzeko erabakia hartu.

54. artikulua. Soberakinen banaketa

Bat. Soberakin garbien banaketa, dagozkien zergak kendu ondoren, Batzar Nagusiak erabakiko du, ondorengo arauen arabera:

a) Gutxienez %30 Nahitaezko Erreserba Fondora, eta heziketarako eta kooperatiba sustapenerako eta interes publikoa duten beste helburu batzuetarako kontribuziora bideratuko da, gutxienez %10 heziketarako eta kooperatiba sustapenerako eta interes publikoa duten beste helburu batzuetarako kontribuziora izango delarik eta %20 Nahitaezko Erreserba Fondorako.

Nahitaezko Erreserba Fondoa Kapital Sozialaren %50era iristen ez den bitartean, heziketarako eta kooperatiba sustapenerako eta interes publikoa duten beste helburu batzuetarako kontribuziora ezarrita dagoen gutxieneko kopurua erdira murriztu ahal izango da.

b) Gainerako soberakinekin borondatezko erreserba fondo bat sortuko da, Etorkizuneko Galerak Konpentsatzeko Fondo Berezia izenarekin, eta hau ezingo da banatu, kitatzen denean izan ezik.

55. artikulua. Nahitaezko Fondoak

Bat. Nahitaezko Erreserba Fondoa ezin da banatu bazkideen artean.

Nahitaezko Fondo honetarako izango dira, aurreko artikuluan zehaztutako dotazioez gain, bazkideak Kooperatiba uztean ekarpeni egindako kenketak eta sarrera kuotak.

Bi. Heziketarako eta kooperatiba sustapenerako eta interes publikoa duten beste helburu batzuetarako kontribuzioa ez dago banatzerik, ezta bahitzerik ere, eta horretara bideratuko dira, aurreko artikuluan ezarritako dotazioez gain, diziplinazko bidez bazkideei ezarritako diruzigorrak.

Hiru. Heziketarako eta kooperatiba sustapenerako eta interes publikoa duten beste helburu batzuetarako kontribuzioa —horren erabilerrako ildo nagusiak Batzar Nagusiak finkatuko ditu ekitaldi bakoitzean— 11/2020 Legeak aurreikusitako helburuetara bideratuko da, eta bereziki ondorengo hauetara:

a) Laguntza teknikoa sustatzeko, Kooperatibaren laguntzarako gainegiturak sortzeko eta, oro har, Lankidetzaren arloan sartzen diren jarduerak bultzatzeko.

b) Bazkideak kooperatibagintzaren printzipioetan eta teknikan prestatu eta hezteko, eta Kooperatibak diharduen gizartean kooperatibismoa zabaltzeko.

c) Kooperatibaren inguruko edo, oro har, komunitateko gizarte, laguntza eta kultur premiak asetzeko.

56. artikulua. Galeren Egozpena

Bat. Galerak kontu berezi batera egotz daitezke, etorkizuneko emaitza positiboaren kargura amortizatzen, gehienez ere bost urteko epearen barruan.

Bi. Galeren konpentsazioa, legezko mugen barruan, hauen aurka egingo da:

a) Borondatezko Erreserba Fondora egotziko dira.

b) Erabilgarri dauden Gaurkotze Fondoetara.

- c) Nahitaezko Erreserba Fondora, legeriak baimendutako gehieneko mugen barruan.
- d) Bazkide guztien artean banatuko dira berdintasunez.

VII . KAPITULUA: KOOPERATIBAREN LIBURUAK ETA KONTABILITATEA

57. artikulua. Kooperatibaren dokumentazioa

Bat. Kooperatibak ondorengo liburuak izango ditu:

- a) Bazkideen Erregistro Liburua.
- b) Kapital Sozialera egindako Ekarpenen Erregistro Liburua.
- c) Batzar Nagusiaren, Kontseilu Errektorearen eta Zaintza Batzordearen Akta Liburua.
- d) Kontabilitate Liburuak, nahitaezkoak direlarik Inbentario eta Balantzeen Liburua eta Egunkari Liburua.
- e) Legezko beste xedapen batzuek eskatzen dituztenak.

Horiek guztiak Kooperatiben Erregistroak, legeztatuko ditu.

Bi. Kontuen idazpen eta oharra edozein prozedura egokiz egingo dira, mekanizatuta edo ez, Nahitaezko Liburuen baliokidea kronologikoki sortzeko eta behar bezala legeztatzeko modua ematen badu.

Hiru. Kooperatibak bere jarduerari dagozkion Liburuak, eskutitzak, dokumentuak eta frogagiriak gutxienez 6 urtez gordeko ditu, horretaz xedapen orokorrek edo bereziek ezartzen dutenaren kalterik gabe.

58. artikulua. Kontabilitatea

Bat. Kooperatibak bere jarduerari dagokion kontabilitatea eramango du, partida bikoitzaren sistemaz, merkataritzako legeria eta legezko gainerako xedapenetan ezarritakoaren arabera, kooperatiben ekonomi araubidearen berezitasunak errespetatuz.

58.bis artikulua . – Kooperatibaren Ekitaldi Ekonomikoa

Kooperatibaren ekitaldi ekonomikoa irailaren 1ean hasiko da eta hurrengo urteko abuztuaren 31an bukatuko da.

Administratzaileek, urtero, dagokion urteko abuztuaren 31ko datarekin, eta legezko epeen barruan, Urteko Kontuak, Kudeaketa Txostena eta Emaizten Erabilerarako Proposamena egingo dituzte.

VIII . KAPITULUA: DESEGITEA ETA KITATZEA

59. artikulua. Desegiteko arrazoiak

Bat. Kooperatiba desegiteko arrazoiak ondorengoak izango dira:

- a) Batzar Nagusiaren erabakia, bertaratutako eta ordezkaturako botoen bi herenen gehiengoaz hartua.
- b) Kooperatiba eratzeko legez behar den bazkidekopurura ez iristea, eta egoera horrek gutxienez hamabi hilabete irautea.
- c) Beste kooperatibaerakunderen batekin bat egitea edo honek bereganatu eta xurgatzea.
- d) Erabateko zatiketa, bazkide guztiei eta kooperatibaondare osoari eragiten diena, aurreko pertsona juridikoa desagertu delako.
- e) Kooperatibaren helburua ezin dela lortu ikustea, edo organo sozialak funtzionatu gabe egotea, elkarren segidako bi urtetan.
- f) Kooperatibaren likidazio-fasea irekitzea konkurtso-prozeduran.
- g) Kapital Soziala Estatutu hauetan ezarritako gutxienezko behera murriztea, hamabi hilabetetan lortu gabe gutxienezko kopuru hori.
- h) Legeetan edo Estatutu hauetan ezarritako beste edozein arrazoi.

Bi. Desegitea Batzar Nagusiak erabaki behar du, gehiengo arruntez, aurreko ataleko a), c) eta d) kasuetan izan ezik, horietan beharrezko gehiengo bi herenekoak izango baita gutxienez.

Hiru. Estatutu hauetan zehaztu gabeko guztian, Euskadiko Kooperatiben Legeak kooperatiben desegite eta kitatzeari buruz ezartzen duena aplikatuko da.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Kooperatiba hau ondorengo erakundeotako kide edo bazkide da:

MONDRAGON Sozietate Zibila (edo bere ondorengo erakundea), honen Arau Bilduma eskritura publiko bihurtu zelarik Arrasateko (Gipuzkoako) notarioaren aurrean 1994ko otsailaren 3an eta 1995eko martxoaren 23an.

Lagun Aro BGAE, Borondatezko Gizarte Aurreikuspenerako Erakundea, Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatua, 1087. idazpenean, 1007. folioan, 48. liburukian.